

# G

ENERO IKUSPEGIA  
GARAPEN PROIEKTU  
ETA PROGRAMETAN  
BARNERATZEKO GIDA  
METODOLOGIKOA

EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

ETA

KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA  
GARAPEN LANKIDETZARAKO ZUZENDARITZA

VITORIA - GASTEIZ 1998

**IZENBURUA:** "Genero ikuspegia garapen proiektu eta programetan barneratzeko Gida metodologikoa"

**EGILEA:** EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz, eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Navarra, 2. Vitoria-Gasteiz

**AUTOREA:** Carmen de la Cruz

**MAKETATZAILEA:** Ana Rincón

**KOORDINATZAILEA:** HEGOA. Nazioarteko Ekonomia eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea

**DATA:** Abendua, 1998

**ALE ZENBAKIA:** 2.000

**DESKRIBATZAILEAK:** Garapen politika, nazioarteko lankidetzaz, genero ikerlanak, alde metodologikoak

**ILUSTRATZAILEA:** Iñigo Ordozgoiti

**FOTOMEKANIKA:** ESDA - Hurtado de Amézaga, 27 - 11º Dpto. 3

**INPRIMAKETA:** GRAFO - Av. Cervantes, 51 - C. de Empresas DENAC, Pab. 21 - 48970 Basauri

**ISBN:** 84-87595-72-3

**LEGE GORDAILUA:** BI-2662-98

## AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
SARRERA	13
<i>LEHENENGO ZATIA</i>	
GENEROAREN AZTERKETA ETA PLANGINTZA	17
1. ZER DA GENEROAREN AZTERKETA?	19
1.1. Sexu-genero sistema	21
1.2. Generoaren izaria	23
1.3. Generoaren ikuspegia	23
1.4. "Boteretzea"	24
1.5. Baztertu beharreko topikoak	25
2. ZERGATIK BARNERATU BEHAR DUGU GENERO IKUSPEGIA GARAPENEAN?	27
2.1. Pertsonei zuzendutako garapena	29
2.2. Eraginkortasun ekonomikoa eta jasangarritasuna	30
3. ZE BILAKAERA IZAN DU IKUSPEGI HONEK? Emakumeak garapenean-etik (MED) generoa garapenean-era (GED)	31
3.1. Zer proposatzen du generoa garapenean ikuspegiak?	33
4. NOIZ ETA ZEIN MAILATAN DA BEHARREZKO GENERO IKUSPEGIA ANTOLAKUNTZA BERAREN GARAPENEAN?	39
4.1. Noiz da beharrezko genero azterketa?	41
4.2. Zein mailatan da beharrezko genero ikuspegia antolakuntza beraren garapenean?	41
4.2.1. Politika mailan	42
4.2.2. .Prozedura mailan	42
4.2.3. Pertsonalaren mailan	42
5. PROIEKTUETAN EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA JORRATZEKO HIRU MODU	45
5.1. Politika zehatzak	47
5.2. Politika neutralak	49
5.3. Birbanaketa politikak	50
6. GENEROAREN PLANGINTZA	53
6.1. GED ikuspegia barneratuz. Laburpen bat	55
6.2. Generoaren plangintza	56
A. Erremintak	56
A.1. Komunitate batean genero-harremanak aztertzeke erreminta	

kontzeptualak . . . . .	56
A.1.1. Lanaren sexu/genero banaketa . . . . .	56
A.1.2. Baliabide eta onuren eskuragarritasun nahiz kontrolaren azterketa . . . . .	59
A.2. Garapen iharduketa bat planifikatzeko erreminta kontzeptualak . . . . .	60
A.2.1. Premia praktikoak eta interes estrategikoak . . . . .	60
A.2.2. Partaidetza mailak . . . . .	62
A.2.3. Eraldaketa potentziala . . . . .	63
A.2.4. Erakundeen azterketa . . . . .	64
B. Generoaren plangintza faseak . . . . .	65
B.1. Diagnostikoa . . . . .	65
B.2. Helburuak . . . . .	65
B.3. Jarraipena . . . . .	65
B.4. Kontsulta eta partaidetza . . . . .	66
B.5. Generoaren sarrera estrategia . . . . .	66
C. Generoaren praktikako osagaiak . . . . .	67

## BIGARREN ZATIA

### GENEROAREN AZTERKETA ETA PLANGINTZA PROIEKTU BATEN ZIKLOAN

APLIKATZEA . . . . .	69
Sarrera . . . . .	71
1. IDENTIFIKAZIOA . . . . .	73
1.1. Egoeraren azterketa . . . . .	76
1.2. . . . . .Partehartzaileen azterketa	77
1.3. . . . . .Arazoen azterketa	79
2. FORMULAZIOA . . . . .	81
2.1. Plangintzaren matriza . . . . .	83
2.2. Adierazleak . . . . .	87
3. BURUTZAPENA . . . . .	89
4. JARRAIPENA ETA BALIOESPENA GENERO IKUSPEGI BATETIK . . . . .	93
4.1. Proiektuaren aurrerakuntzaren jarraipena . . . . .	95
4.2. Emaitzen jarraipena . . . . .	96
4.3. Generoaren jarraipenerako beharrezko baldintzak . . . . .	96
4.4. Proiektuaren azken balioespena . . . . .	97
ERANSKINAK . . . . .	99
I. ERANSKINA. Proiektu guztien adierazleak . . . . .	101
II. ERANSKINA. Osasun saileko egiaztapen zerrenda baten eredia . . . . .	105
III. ERANSKINA. Egoeraren azterketan erabiltzeko ezaugarriak . . . . .	108
IV. ERANSKINA. Glosategia . . . . .	114
BIBLIOGRAFIA . . . . .	117

**A**URKEZPENA


Generoaren ikuspegia garapenerako lankidetzaren arloko jardunbide eta eskuhartze guztietan erabiltzea ezinbesteko baldintza da justizia soziala eta garapen lanaren benetako eraginkortasuna lortu nahi badugu, hau da, jarduera horiekin benetako gizarte aldaketa lortu nahi badugu.

Garapen bidean dauden herrialdeetan, nahiz eta sexua- ren ondorioz jasan beharreko baldintza mugatzaileengatik beren lanaren eraginkortasuna mugatu eta gizarte guztiarentzako onurak murriztu, emakumeek burutzen duten eginkizun ekonomiko eta sozialaren garrantziak erakutsi du ezinbesteko delako emakumeak bete-betean eskuhartzea, garapen hori iraunkorra eta eraginkorra izan dadin.

Orain arte, egindako ahalegin guztiekin ere, oso gutxi dira gizon eta emakumeen arteko egoera, zeregin, erantzukizun, premia, aukera eta lehentasunen arteko ezberdintasunei behar bezala aurre egin dieten garapenaren aldeko eskuhartzeak, edota oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko, erabakiak hartzeko eta baliabide ekonomikoak kontrolatzeko gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun larri eta iraunkorrak kontuan hartu dituztenak.

Euskadiko Autonomi Elkartearen Emakumeentzako Ekintza Positiboaren II. Planak bere helburuetako bat bezala biltzen du Garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzarako jardunbide eta programetan generoaren ikuspegia erabiltzea sustatzea, proiektu zehatz jakinetan erabil dadin bermatuz, Pekinen egin zen Emakumeen buruzko Munduko Laugarren Konferentziako Jarduera Plataforman eta sexuen arteko ezberdintasun soziokulturalekin zerikusia duten alderdien garapenerako lankidetzan integratzeari buruz Europako Legebiltzar- rari eta Ministroen Kontseiluari helarazitako Batzordearen Komunikazioan adierazitakoari jarraituz. Jarraipide hauek Garapenerako Lankidetzaren eta Laguntzarako Fonda FOCAD arautzen duen Dekretuan gauzatu dira 1995az geroztik.

Gida hau osatu eta argitaratzearen helburua garapenerako lankidetzaren arloan burutu beharreko eskuhartzearen urrats guztietan generoarekin zerikusia duten gaien azterketa egiteko aukera emango duten tresnak eskaintzea izan da, proiektuen diagnosian, plangintzan, eraketan, burutzapenean eta ebaluaketan, hala nola dirulaguntzak emateko balorazioan baliagarri izan daitezten.



EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria

Aurten 50 urte beteko dira Nazio Batuek Giza Eskubide- en Aldarrikapen Unibertsala egin zutenetik. Urteurren garrantzi- zitsua da, beraz, gogoeta egin dezaten Nazioarteko Erakun- deek, horiek osatzen dituzten Estatuak eta estatu bakoitzeko Erakunde Publikoek nahiz Entitate pribatuek GKEk, Eleizek, Erlijiosoaren Ordenek, Unibertsitateek, garapenerako lanki- detza Politikan aholkulari edo/eta ebaluatzaile diren Aholku- laritzek, etab.

Gogoeta honen helburu nagusia gizaki guztiok, bakoit- zak bere gizartean hala nola nazioarte mailan, haien erabate- ko garapenerako aukera berdintasun osoa izan dezagun ziur- tatzea izan beharko luke, betiere gaur egun baldintza okerra- goetan bizi direnen aldeko ekintza positiboetan oinarrituz.

Zentzu honetan, Jacques Delors-en lehendakari- zapeko XXI. menderako hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzorde- deak UNESCOri egindako txostenean ( Hezkuntzan altxor bat dago ) garbi adierazten da, esaterako, emakumeek eta gizo- nezkoek hezkuntza arloan aurkitzen duten ezberdintasun kez- kagarria, hauxe izanik pertsonaren garapenerako baliabiderik beharrezkoena. Honela bada, jarraitzen du txostenak, ezber- dintasunak guztiz nabarmenak izaten jarraitzen dute, zeren munduan alfabetatu gabe dauden guztien bi herenak, hau da 565 milioi pertsona, emakumeak baitira, eta horietako gehie- nak Afrika, Asia eta Hego Amerikan garapen bidean dauden eskualdeetan bizi dira. Mundu mailan haur nesken eskolaratze maila haur mutilena baino txikiagoa da; lau neskatik bat ez da eskolara joaten, eta mutikoen kasuan, berriz, seitik bat ... (...) Aukera ezberdintasun hori... XX. mende honen amaie- ran, bere neurri eta larritasunagatik, giza eskubideen aurkako eraso nabaria da .

Emandako datuek eta egindako aipamene- k garbi erakus- ten duten egoerari aurre egiteko FOCAD Programaren Gara- penerako Lankidetzaren Politikak adierazten duenez lankidetzara- ko irizpide nagusietako bat generoaren ikuspegia indartzeare- na izan behar du Erakunde Publikoek nahiz Pribatuek garatzen dituzten jardueren azalpen, burutzapen eta ebaluazioan.

Ikuspegi politiko honekin osatu du EMAKUNDEk Genero Ikuspegia Garapen Proiektu eta Programetan Barneratzeko Gida Metodologikoa, gizon eta emakumei neurri berean da- gozkien Giza Eskubideen aldeko lanean jarraitzeko tresna ba- liagarria gertatuko delakoan.



JOSU LEGARRETA BILBAO  
Garapen Lankidetzarako zuzendaria  
Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia

*"Generoaren izaria ez bada garapenean barneratzen,  
garapena bera jarriko dugu arriskuan.  
Eta pobrezia murriztea xedetzat duten estrategiek  
ez badituzte emakumeak bultzatzen  
ez dira gizarte osoarentzat onuragarri izango".*

Giza Garapenari buruzko Txostena, PNUD, 1997.

TAULEN AURKIBIDEA . . . . .	121
-----------------------------	-----

SIGLAK . . . . .	122
------------------	-----

Beijing-en Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentzia egin zenetik hiru urte igaro ondoren, beharrezkoa da berriro ere azpimarratzea aldi horretan lortutako onurak sendotu egin behar direla, eta halaber, garapenerako lankidetzaren alorrean oraindaino lortutako aurrerapenak egiaztatatu egin behar direla, eta bereziki, generoaren plangintzan.

Europa mailan, Europako Batasuneko (EB) Ministroen Kontseiluak 1995. urtean Generoari buruzko Ebazpena izenekoa onartu zuen. Ebazpen horren helburua, garapenerako lankidetzaren eremura Beijing-en hartutako konpromisoak ekartzea da. Ebazpen horrek zenbait printzipio gidari jasotzen ditu EBarentzat eta Estatu Kideentzat, eta horien artean ondokoak aipa litezke:

*“Garapenerako Lankidetzak jarrera, egitura eta mekanismo aldaketak sustatu eta bultzatu behar ditu politika, zuzenbide, gizarte eta famili arloetan, genero desorekak murrizteko asmoz, eta bereziki:*

- botere politikoaren banaketa eta erabateko berdintasunezko partaidetza bultzatu behar da maila guztietako erabakiak hartzean;*
- boteretzeko ekonomikoa eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna indartu behar da, baliabide ekonomikoei buruzko kontrolean nola horien eskuragarritasunean;*
- garapen aukerei buruzko kontrola eta berdintasunezko eskuragarritasuna bultzatu behar da.”*

Horrek esan nahi du helburua ez dela garapen proiektuetan tartaren zati txiki bat emakumeentzat ziurtatzea, baizik eta garapenerako antolamenduen lanak dituen ondorio sakonak eta garapenerako alderdi ezberdinak kontzeptualizatu eta jorratzeko modua aztertzea.

Gida honetan proposatutako ikuspegia, GENEROA GARAPENEAN (GED), azkenaldian egindako aurrerapen handienetako bat da bai azterketa teorikoetan eta bai garapenaren praktikan ere. Emakume eta gizonen arteko desorekak nola bien arteko harremanak, horiek garapenean duten eragina, eta halaber, desoreka horiek iraunarazten dituzten indarrak eta horiek alda ditzaketenak ulertu beharrak sortu du.

Iraganean askotan segurutzat jotzen zen emakumeek automatikoki jasotzen zituztela garapen ahaleginen onurak, ia modu naturalean. Nolanahi ere, begibistakoa zen, emakumeek ez bazuten programazioko fase guztietan esplizituki parte hartzen, beren egoerak errazago egingo lukeela okerrera, hobera baino, ziurrenik. Horregatik, GED ikuspegiak, emakumeak garapen prozesuan barneratu ez ezik, generoko gizarte desoreken harremanak eraldatzeko eta emakumeak boteretzeko iharduketan potentziala ere ikertzen du.

Ilido horretatik, gida honek testuinguru bat ezarri nahi du garapenean genero ikuspegia aztertzeko, ikuspegi hori politiketan eta proiektuetan barneratzean antolamenduen onurak zehazte-



ko, horren aplikazio praktikorako metodologia bat eskaintzeko, eta baliabide erabilgarriak iradokitzeke. Testuinguru horren oinarri den baieztapenaren arabera, politikek eta beren mekanismoek emakumeen bizi-esperientziak isladatzen ez dituzten bitartean, desabantailazko egoera batean jarraituko dute. Ikuspegi hori erabiltzeak, beraz, emakumeen gizarte eta ekonomia egoera hobetzen lagunduko du.

Kontsultatutako lan ezberdinen azterketatik abiatuz prestatu den gida honek, zenbait testu egokitu, beste batzuk berregin eta egilearen esperientzietatik datozen elementuak barneratu dituzte. Alegia, ideia, ikuspegi, pentsamolde eta esperientzia ezberdinak batean jartzen ahalegindu da. Bere xedea ez da zehatza izatea, baizik eta GED ikuspegiak gutxien jabetzen direnentzat sarrera gisako zerbait izatea, eta aldi berean, garapenaren arloan hezkuntzan dihardutenentzako laguntza bat.

Garapenerako lankidetzan lan egiten duten guztiei zuzendurik dago: Administrazio Publikoetako pertsonala, ONG/GKEak, tokiko elkarteak, eleizak, unibertsitateak, elkargo profesionalak, lanbide heziketarako guneak eta bolondresak orokorrean.

Gidaren lehen zatiak oinarrizko zenbait gai kontzeptual eta analitiko argitzea du xede, hala nola genero kontzeptua, generoaren azterketa eta ikuspegia, generoaren zergatia garapenean, bere bilakaera historikoa, etab., baita gai eraginkorrak ere, genero plangintzaren praktikari, bere faseei, erremintei eta prozedurei buruzkoak. Bigarren zatiak, ikuspegi praktikoko batetik abiatuta, proiektu zikloaren aurreko gai guztiak barneratzen ditu.

Glosategi bat gehitu da erabilitako hiztegia hobeto ulertzeko, eta bibliografia bat, gai horiek sakondu nahi dituzten pertsona guztiek erabil dezaketena.

Gida hau sarrera bat da garapenerako lankidetzan parte hartzen duten talde guztiek beren proposamenak dagozkien iharduketa eremuetan barneratu ditzaten, eta modu horretan, garapenaren kontzeptuari esanahi aurrerakoi, berdintasunezko eta demokratiko bat eman diezaieten.

# 6 ENEROAREN AZTERKETA ETA PLANGINTZA

LEHENENGO ZATIA

# 1. ZER DA GENEROAREN AZTERKETA?

- 1.1. SEXU-GENERO SISTEMA
- 1.2. GENEROAREN IZARIA
- 1.3. GENEROAREN IKUSPEGIA
- 1.4. "BOTERETZEA"
- 1.5. BAZTERTU BEHARREKO TOPIKOAK

## 1.1. SEXU-GENERO SISTEMA

SEXU hitza emakumeen eta gizonezkoen arteko ezberdintasun biologikoaren azalpenari dago-  
kio, eta ez ditu ezinbestean jokaerak erabakitzen.


GENERO kontzeptuak gizarte bakoitzean sexu bakoitzari atxikitzen zaiona adierazten du, hau  
da, emakume eta gizon izatearen gizarte mailako eraketa, elkarren arteko harremana eta elkarra-  
rreman hauek ematen diren botere/menpekotasun egoera ezberdinak. (OXFAM, 1997).

*“Sexu-Genero sistemak sexu ezberdintasunetik abiatuz gizarteek eratzen dituzten iharduera,  
sinbolo, irudikapen, arau eta balore sozialen multzoak dira”.* (De Barbieri, 1992)

Sistema honek erabaki ditu bai emakume eta gizonen arteko gizarte egoera ezberdina eta bai  
elkarren arteko harreman desorekatuak. Sexu-Genero Sistemak emakumeen diskriminazio eta  
baztertze egoera eragin du historikoki, ikuspegi ekonomiko, politiko, sozial eta kulturean, hala  
nola arlo publikoan eta pribatuan, oso era argi eta bereizituan ezarriz gizonen iharduera produkti-  
bitate arloan eta emakumeena ugalketan.

Pertsona bakoitzarentzat bere sexu biologikoaren arabera zeregin, gune, ezaugarri eta norta-  
sun ezberdinak ezarriz eratzen da gizarte egoera ezberdindu hau, eta horrek egoera ezberdindua  
(eskubide, balore, aukera mailan) eta kodigo konplexua sortzen du, sexuen arteko harremana an-  
tolatu eta arautuz.

Beraz, generoaren azterketak ondorengoa bereizten du:



(Walker, 1997).

Generoak erabakitzen du gizon eta emakumeentzat zer den komenigarria, egokia eta bi-  
deragarria, beren gizarte esparru ezberdinetan dituzten jokabide eta jarrera, zeregin eta

iharduera, eta partaidetzaren arabera: familia ingurunean, heziketan, gobernuan, ekonomi ihardueretan, dirusarrera eta baliabideen banaketan, eta erakundeetan, testuinguru sozio-kultural jakin bakoitzean.

Ikasitako jokabide honek zehazten du generoaren nortasuna eta erabakitzen du generoaren zeregina.

Gizarte erakundeek berregin, berrindartu eta kontrolatu egiten dute genero patroien funtzionaltasuna, gizarteratze prozeduren bidez iraunaraziz.

Genero sistemen azterketak gizarte egitura jakin batzuetara bideratzen du:

1. Senidetasun sistemara, bertan ezkontza, filiazioa eta oinordekotza zehaztuz, hau da, sexu eta belaunaldi ezberdineko pertsonen arteko oinarrizko leialtasun solidarioak bideratzen dituzten harremanak.
2. Lanaren zatiketa sozialera sexuaren eta adinaren arabera.
3. Pertsonen hiritartasunaren eta eskubide eta betebeharren ezarpena, estatuaren antolamendura, botere politikoaren erabilerara eta politikaren kulturara.

*“Indarreango Sexu-Genero Sistemak emakume eta gizonen arteko botere harreman desorekatua sortzen du, ezagutza, jabetza, dirusarrera, erantzukizun eta eskubideen banaketa desorekatuarekin zerikusia dutelarik. Beraz, desoreka sozialaren izaria du”.* (De Barbieri, 1992).

Errealitate bat ikuspegi honetatik aztertzeak testuinguru jakin bateko emakume eta gizonen arteko harremanari buruzko informazioa biltzeko aukera ematen digu. Horrela, arazoa ez datza emakumeengan, baizik eta emakumeen eta gizonen arteko botere harreman desorekatuan. Beraz, konponbideak ere bien artean aurkitu beharko dira, gizarte osoaren onura eta aldaketarako baliagarri izan daitezzen.

Halaber, genero harremanak bestelako desoreka batzuk ere gurutzatzen ditu, gizarte, adin, etnia eta abarreko kolektibo ezberdinetakoa izatearen arabera, desabantaila egoera bikoitzak edo hirukoitzak eraginez.

Horrela begiraturik, edozein eratako gizartean, hau da, gizarte prozesuetan eta, beraz, garapen prozesuetan emakumeek gizonetik bizi dituzten baldintzak aztertzeke tresna nagusienetakoa da generoa.

## 1.2. GENEROAREN IZARIA

Kontzeptu honek GENEROA AZTERKETARAKO KATEGORIA BEZALA hartzen du, eta testu-inguru bat, errealitate jakin bat, esperientzia bat edo proiektu jakin bat ezagutzeko eta ebaluatze-ko balio du. Ondorengoak aztertu eta ebaluatze-ko erabil daitezke:

eskuhartze proposamenen ondorioak;  
emakumeen baldintza eta egoera aldaketa;  
edo genero harremanetako zenbait alderdi.

GENEROAREN IZARIA AZTERKETARAKO KATEGORIA BEZALA HARTZEAK INDARREANGO SEXU-GENERO SISTEMA ARGITASUN HANDIAGOZ IKUSTEKO AUKERA EMATEN DIGU.

Garapenaren ikuspegia horrela harturik, egiaztaturik geratzen da proiektuek edo programek, hala planteatu ala ez, beren ondorioak dituztela, jakinaren gainean nahiz oharkabeaz, sistema hau indartu edo horren aldaketa bat eragiteko garaian. (GTG, 1997).

## 1.3. GENEROAREN IKUSPEGIA

Kontzeptu honetan, indarreango sexu-genero sistemaren aldaketarako aukera politiko bezela hartzen da generoa.

Generoaren ikuspegiak zera esan nahi du, Europako, herrialde industrializatuak eta garabidean dauden herrialdeetako politika komunitarioak antolatu, burutu eta ebaluatze-ko urrats guzti-guztietan emakumeen eta gizonen baldintza, egoera eta premien ezberdintasunak sistematikoki kontuan izatea.

Azken batean, era guztietako antolakuntza eta erakundeen konpromisoa eskatzen du, emakumeen baldintzak eta egoera aldatzeko eta sexu-genero sistema orekatu, zuzen eta elkartasunezkoa lortzeko begira lan egiteko.

Egin beharrekoa:

Emakumeek gizonekiko duten desoreka eta menpekotasun egoera aldatzea ekonomia, politika, kultura eta etnia arloetan.

Emakumea bizi deneko hurbileko egoera materialarekin zerikusia duten baldintzak kontuan izatea: dirusarrerak, osasuna, etxebizitza, etab. bere eguneroko bizimoduko baldintzak hobetzeko.

Hiru mailatan:



ETXEBIZITZA, eskuhartzeko oinarrizko unitate bezala;

KOMUNITATEA eta

ERAKUNDEAK.

Bi alderdiek, hau da, baldintzak eta egoerak, elkarrekin zerikusi handia dute. Baten aurrerape-  
nak bestea indartu dezake, prozedura dinamiko eta elkarrekintzazko batean. (GTG, 1997).

## 1.4. BOTERETZEA <sup>(1)</sup>

Hau oinarrizko kontzeptua da gizakiaren garapenerako. Burujabetzarako, garapenerako eta norberaren eta kolektiboaren hazkunderako prozedurak sortu eta finkatzeko funtsezko estrategia denez, garrantzi berezia hartzen du gizon eta emakumeen arteko oreka lortzeko ahaleginean.

Boteretze hitza garapenaren arloan erabiltzen hasi da, emakumeen bazterketa gainditzen hasteko eta garapena eta oreka bilduz generoaren ikuspegia erabiltzeko gogoagatik. Horrekin, emakumeek (eragile politiko diren heinean) boterera iristeko eta eguneroko bizimoduan beregan eragina duten erabakietan eskuhartzeko aukera gutxienetakoa duen kolektiboa izateari uzteko duten premia azpimarratzen da.

Boteretzearen bidez pertsonak eta kolektiboak hiru botere mota lortzen dituzte:

**GIZARTEKOA:** Informazioa, ezagupideak, gizarteko sareetara eta finantza baliabideetara iristea.

**POLITIKOA:** Beraiengan eragina duten erabakiak hartzeko demokrazi prozesuetara iristea.

**PSIKOLOGIKOA:** Emakumeek, norberak eta kolektibo bezala, duten botereaz jabetzea. Norberaren autoestimua bidez eta pertsona bezala dagokien duintasuna berreskuratzearen bidez lortzen da. (GTG, 1997).

Horregatik, emakumeen boteretzea ez da prozesu pertsonal eta kolektiboa bakarrik, baizik eta haren emaitza ere bada.

---

(1) Nazio Batuen agiriek hainbat itzulpen proposatzen dute ingelesetik datorren "Empowerment" hitzarentzat: emakumeen gaitzea eta autonomia, emakumeen burujabetzea, emakumeek gizartean erabateko eskuhartzea izateko edo beren eskubideen erabateko erabilera egiteko baldintzak sortzea.

## 1.5. BAZTERTU BEHARREKO TOPIKOAK

### **Generoa emakumearen sinonimo gisa erabilia**

Erabilera honetan, genero hitzak ez du emakume eta gizonen arteko desorekari buruzko jarrearik hartzen, eta aldaketarako edozein estrategiatik bereizi egiten dela ematen du.

### **Generoa emakumeei buruzko informazioa, ezinbestean, gizonei buruzko informazioa ere badela iradokitzeak erabilia**

Emakumeen mundua gizonezkoen munduaren partaide delako ideia azpimarratzen du, errealitate horrek eta horren barruan sortua delarik. Erabilera horrek gune bereiztuen (etxekoa/publikoa) ideiarene erabilera interpretatiboa baztertzen du, eta ez du kontuan hartzen sexu baten esperientziak zerikusi gutxi edo bat ere ez duela bestearekin. Emakumeak modu isolatu batean aztertzeak gune batek bestearekiko duen nagusitasuna betikotzen duela defendatzen du.

### **Generoa neurri tekniko bezala erabilia, azterketarako kategoria bezala ordez**

Garapen Agentzietako funtzionarien gehiengo handi batek ez du generoa ikuspegi bat bezala, hau da, azterketarako kategoria bat bezala hartzen, neurri tekniko bat bezala baizik. Astebeteko ikastaro bat espezialista bihurtzeko nahikoa dela ulertarazten dute.

### **Generoa aldagaia bezala erabilia**

Testuinguru honetan, generoaren azterketa emakume eta gizonen errealitateko datu zehatzak (sexuaren arabera bereizita) biltzera mugatzen da sarritan. Datu hauek erakusten dutena eta proiektuetan duten zeregina generoan espezialista diren emakumeei soilik dagokiela dirudien zerbait da. Proiektu bera eta haren onurak, nagusiki androzentrikoak izaten jarraitzen dute.



## 2. ZERGATIK BARNE- RATU BEHAR DUGU GENERO IKUSPEGIA GARAPENEAN?

2.1. PERTSONEI ZUZENDUTAKO  
GARAPENA

2.2. ERAGINKORTASUN EKONO-  
MIKOA ETA JASANGARRITA-  
SUNA

## 2.1. PERTSONEI ZUZENDUTAKO GARAPENA

Galdera hori egitean kontuan izan behar dugu zein eratako garapena aztertzen ari garen. Garapen ekonomikoa al da? Eta beraz, produktibitate ekonomikoak izandako hazkundearen, dirusarreraren, etab.en arabera bakarrik neurtzen al da horren arrakasta, hau da, termino ekonomikoetan soilik? Ala, gizakien garapenaz ari al gara? Eta beraz, eragindako pertsonen ongizate eta berdintasunezko terminoetan neurtzen al da horren arrakasta, alegia, gizarte bat osatzen duten pertsona guztientzako bizi-mailaren terminoetan?

Bigarren garapen horri buruz ari baldin bagara, emakume eta gizonen premia ezberdinak eta emakumeek gizonen aldean duten desabantailazko egoera onartuz gero (ongizate maila eta produkzio faktoreen gaineko kontrola eta horietan sartzeko aukera), horrek eskatuko digu emakumeen aukera berdintasun handiagoaren alde, emaitzen alde eta boteretzeko baten alde lan egitea, generoaren ikuspegitik garapen orekaturako eredu bat finkatuz.

Produkzio, ugalketa eta komunitateko lanetan emakumeak sarritan baztertuak egon dira garapen prozesuetatik. Oraindik alde handia dago emakumeek ekonomian duten partaidetza handiaren (oraindik aitortu gabearen) eta beren botere sozial eta politiko urriaren artean. Nolanahi ere, garapen estrategietan hasiera-hasieratik eta modu zentzuzkoago batez hartzen dira kontuan politikoki aktiboak diren multzoen premiak.

Genero harremanak ulertzeko, emakumeen eta gizonen iharduerak modu bereizi batez aztertu behar dira. Alegia: emakumeek burutzen dituzten produkzio, ugalketa eta komunitate zereginak aztertu behar dira, gizonen burututako zeregin ekonomiko eta sozialekin egin ohi den bezalaxe. Horiek aztertuz, hobeto ulertuko dira beren premiak eta gai edo iharduera zehatzei buruzko erabakiak hartzean duten partaidetza.

Historikoki, garapena aztertu dutenek Iparraldetik ekarritako genero ulerkerak erabili izan dituzte. Proiektu horietako askoren funtsa, senar familiaburuak eta bere menpeko emazte ez-produtzitzaileak osatutako familia-gunea unibertsala delako uste ustela izan da eta oraindik ere bada. Hori ez da kultura askoren joera, eta beraz, xeheki aztertu behar dira familien eta komunitateen osagai guztiak. Gizarte jakin bateko genero zereginak balioetsiz eta ulertuz, emakumeen eta gizonen premia zehatzak egokiago jorratu ahal izango dira proiektu bakoitzean.

*“Emakumeek Afrikako nekazaritzan, eta bereziki Senegal, Gambia, Uganda eta Kenian, izan dituzten zereginei buruzko azterketek argi erakusten dute egindako nekazari-tza lan guztiaren %60a eta %80a bitartean burutzen dutela emakumeek”. (OXFAM, 1997)*

Zergatik izaten da sarritan tabua genero desorekak aztertzea, eta ez, ordea, aberastasun desorekek edo giza-maila batekoa izateak sortutakoak? Generoaren kontrako direnek sarritan diote gizarte baten tradizioetan edo kulturaren elementu nahasgarriak sartzen direla. Generoari buruzko jarrerak, giza-mailarekin edo boterearekin zerikusirik dutenak bezain tradiziozkoak izan litezke.

Genero harremanak argitzen direnean, programa edo proiektu baten barruan horiek balioetsi eta aztertu ahal izango dira. Gizarte bateko pertsona guztiak, beren premia individualen arabera eta maila berean barneratuko dituen prozesu bat da garapena. (OXFAM, 1997)

## 2.2. ERAGINKORTASUN EKONOMIKOA ETA JASANGARRITASUNA

Genero kontzeptua geroz eta gai garrantzitsuagoa bilakatu da garapenaren barruan, eta ez bakarrik berdintasun eta justizia sozialarekin loturiko kezkengatik, baita eraginkortasun ekonomikoaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik ere.

Emakumeek sektore funtsezkoenen garapen sozio-ekonomikorako eragile aktibo gisa eginkizun garrantzitsua bete duten arren, oharkabean igaro dira garapenerako plangintzan, edo bestela, bazterreko eginkizun bat izendatu izan zaie. Generoen artean dauden asimetrien ondorio da hori. Ezin liteke eraginkorra izan biztanleriaren erdia baztertzea eta bigarren mailako eginkizun bat ematea, gizakiaren ahalmena bere osotasunean gutxietsiko baikenuke.

Emakumeei izendatutako eskubide, erantzukizun eta zereginak ezberdinak dira gizonenen aldean. Baliabideak eta aukerak eskuratzea zailagoa dute, hala nola, hezkuntza eta heziketa, maila, lurra eta erabakiak hartzeko agintea. Beraz, baliabideak eta aukerak eskuratzeko desoreka horrek oztopatu egiten du eraginkortasuna eta jasangarritasuna.

*“Gizon eta emakumeen arteko desoreka iraunkorrak produktibitate maila eskasagoa dakarkio gizaritari, eta azkenik, hazkunde ekonomikoaren maila eskasagoa”* (FINNIDA, 1995).

Emakumeak nahiz gizonak beren garapen propioaren, eta, oro har, garapen osoaren eragile aktibo dira, baliabideak eta aukerak berdintasunezko oinarri baten gainean bermaturik egonez gero.

Halaber, generoaren azterketak:

Emaitzen aurrikuspena hobetzen lagun dezake, eta beraz, politikak eraginkorrak eta eman-korrak izan daitezela erraztu.

Kostu eta proiektioek programa eta onurekin duten egokitzapena hobetu dezake.

*“Enpleguari buruzko datuek, azpi-enplegua (lanaldi erdiko lanpostuak dituzten hainbat emakume lanaldi osoan egingo lukete haurtzaindegiko zerbitzuak eskuragarri baleude) edo erabateko langabezia (langabetu gisa erregistratuak ez dauden emakumeak, inolako irabazirik lortzeko esku-biderik ez daukatelako) onartu ezean, oso zaila izango da enplegu edo heziketa programen edo haurtzaindegi zerbitzuen premia zehazki aurrikustea”.* (Ministry of Women s Affairs, Zeelanda Berria, 1996)

# 2

## 3. ZER BILAKAERA IZAN DU IKUSPEGI HONENK? EMAKUMEAK GARAPENEAN-ETIK (MED) GENEROA GARAPENEAN-ERA (GED)

### 3.1. ZER PROPOSATZEN DU GENEROA GARAPENEAN IKUSPEGIAK?

**Emakumeak Garapenean (MED) eta Generoa Garapenean (GED)** garapenerako eredu eta estrategia orokorretan emakumeen menpekotasun eta lanaren gaia ulertzeko eta aztertzeko bi modu ezberdin dira.

70eko hamarraldian, Emakumearen Hamarraldiaz geroztik, emakumeek garapenean duten egoera giltzarria bistaritzen hasi zen. Garapen horretatik baztertuak izan zirela aitortu zitzairen, eta hark arrakasta izan zezan eta jasangarria izan zedin emakumeek egindako lana kontuan hartu beharrekoa zela.

Honela sortu zen MED. Ikuspegi honen helburua emakumeak era funtzional batean garapen estrategia jakin batean barneratzea da. Hau da: garapenak beharrezko ditu emakumeak. Horretarako, emakumeen zeregin produktiboa azpimarratzen da, beren menpekotasuna merkatutik baztertua egoteagatik dela ulertuz. Emakumeak bere aldetik isolaturik hartzen ditu, irtenbide partzialak bilatzen saiatuz eta haien premiak berariazko eskuhartzeen bidez edo emakume osagai bat daramaten proiektuen bidez adieraziz. Ekintza hauek ikuspegi tradizionalen barruan sarturik burutu izan dira gehienetan, zeregin generikoak indartuz eta lanaren gizarte zatiketa zalantzarri gabe. (Ikus ikuspegiaren bilakaera ondorengo tauletan).

70eko hamarraldiaren amaieran, (emakumeen antolakuntzen eraginez eta nazioarteko antolakuntzetako emakume funtzionarioen eraginez) zalantzetan jartzen hasten da emakumeei soilik begiratzea. Emakumeen menpekotasuna ulertu ahal izateko, beste hainbat alderdiren garrantzia sartzen da eztabaidan, hau da, botere harremanak, generoaren gatazka eta harremanak. Eztabaida honi esker, pixkanaka, MED ikuspegitik GED ikuspegira pasa zen eta plangintzarako tresnak eta metodologiak zehaztu ahal izan ziren.

### **3.1. ZER PROPOSATZEN DU GENEROA GARAPENEAN IKUSPEGIAK?**

Emakumeen menpekotasun egoera aitortzetik abiatzen da, emakumeak eta gizonezkoek egoera jakin batzutan dituzten harremanen azterketaren ondorioz, eta bizitzako bestelako egoera batzuk kontuan hartuz, hau da, gizarte, etnia, adin talde jakin batzuetako partaide izatea.

Aukeren eraginkortasuna eta identifikazioa bultzatzen du, generoaren birbanaketa egokitzeko eta politiketan, proiektuetan eta garapen programetan berdintasuna hobetzeko.

Emakumeen premiak isolaturik aztertzeari uztea eskatzen du, etxeetan, komunitateetan eta erakundeetan genero harremanen azterketa baten osagarri bezala hartuz.

Emakumeen eta desabantaila duten kolektiboen boteretzea lortu nahi da, elikadura, etxebizitza, ura eta norberaren ekonomi nahikotasuna ziurtatzeko generoaren premia praktikoak asetzea barne.

Nagusi den garapen eredua zalantzan jartzen du, garapen gizatiar, jasangarri eta zuzena aldarrikatuz.

Egiturazko desorekak gainditzea lortu nahi du, komunitatearen mobilizazio indarraren bidez.

Gizarteko proiektuen identifikazio, diseinu eta burutzapenean emakumeek eta gizonak era berean eskuhartu behar dutela adierazten du.

MED eta GED ikuspegiaren arteko ezberdintasuna erakusten duen eredu bat:

Indiaren Hegoaldean eskala handiz egindako basogintza proiektu batean, helburua basoaren birsorkuntza da, merkataritza erabilera jasangarria emateko asmoz, horrekin bertako komunitateen iraupena lortuko litzatekeelako. Horrek ekoizpen eta merkaturatze urrats ezberdinak eskatzen ditu: erein, uzta jaso eta merkaturatu. Iharduera guztiak gizonei zuzendurik doaz. Emakumeen premiak asetzeko MED ikuspegia honakoa izan liteke: epe luzera berariazko proiektu bat garatzea, beraiek produktuen kontserbak egiteaz arduratzeko.

GED ikuspegiaren berriz, proiektuaren plangintzaren lehen urratsetatik kontuan harturik egongo litzateke. Emakumeen zeregin produktiboa kontuan hartuko litzateke eta ekoizpenaren prozesuan berdintasunean oinarriturik sartzeko ahalegina egingo litzateke, emakumeek eskuhartzeko oztopoak aztertuko lirateke eta berariazko ihardueren bidez gainditzeko saiatuko lirateke, gizonen aurkakotasuna hausteko moduak ere aurkituz.

Beraz, emakumeen eta gizonen arteko botere orekaren egiturarekin zerikusia zeukan aldaketa proposatuko litzateke. (MacDonald, 1994).

## I. Taula. MED eta GED ikuspegien alderdi nagusiak

	<b>EMAKUMEAK GARAPENEAN</b>	<b>GENEROA GARAPENEAN</b>
IKUSPEGIA	Emakumeak arazoaren erdigunea.	Emakumeen eta gizonen garapena.
GAI NAGUSIA	Emakumeak (eta neska txikiak).	Emakumeen eta gizonen arteko harremanak.
ARAZOA	Emakumeak garapen prozesuetatik kanpo geratzea (giza baliabide produktiboen erdiak izan arren).	Botere harreman ezberdinak (aberatsak eta behartsuak, gizon eta emakumeak), berdintasunezko garapena eta emakumeen erabateko partaidetza eragotziz.
HELBURUA	Garapen eraginkorragoa.	Garapen jasangarria eta berdintasunezkoa, erabakiak emakume eta gizonen artean hartuz.
KONPONBIDEA	Dagoen garapen prozesuan emakumeak barnebiltzea.	Emakumeak eta desabantailak dituzten pertsonak boteretzea . Harreman desorekatuak aldaraztea.
ESTRATEGIAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen proiektuak.</li> <li>- Emakumeen osagaia.</li> <li>- Proiektu integratuak.</li> <li>- Emakumeen soldatak handitzea.</li> <li>- Emakumeen produktibitatea handitzea.</li> <li>- Emakumeen gaitasunak handitzea etxea zaintzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen eta gizonen bizimodu baldintzak hobetzeko premia praktikoak ezagutu eta adieraztea.</li> <li>- Aldiberean, emakumeen interes estrategikoak ezagutu eta adieraztea.</li> </ul>
ONDORIO ARAZOAK	Ikuspegi honek, sarritan, emakumeen lana areagotu egin du, botere ekonomikorik eskuratu gabe. Emakumeei ez zaie galdetu ze eratako garapen edo integrazioaren bila zebiltzan. Gizonen munduan integratzen dira, botere harremanen aldaketarik gabe.	Proiektuko eskuhartzeak emakumeek eta gizonen, bizi diren gizartean, dituzten zeregin, ardura eta boterean eta beren egoera aldatzeko sortzen diren premietan oinarritzen dira. GEDa emakumeek gizonetikiko duten egoera hobetzeko ahalegin bat bezala har daiteke, gizartea bere osotasunean aldatu eta denen onerako izateko moduan.

(OXFAM, 1997).

Ondorengo taulak garapenari buruzko iharduera politikoan eragina izateko proposamen ofizialak, akademikoak eta oinarrizko gizarte mugimenduen proposamenak biltzen ditu. Hirugarren Munduko dirusarrera txikiko emakumeei laguntzeko taxututako ekimen politiko, programa eta proiektu ezberdinen sailkapena da. Eskuhartze ezberdinek garbi erakusten dute garapen joeretan eman diren aldaketak. Aldaketa horiek, elkarren eskutik joan direnez, une bakoitzean maila makroekonomikoan eman diren aldaketak isladatzen dituzte, esaterako: modernizatzeko eta hazkunde bizkorretik abiatu eta egitura doikuntzari atxikitako konpentsazio neurrietara iritsiz, oinarrizko premiak betetzetik eta birbanaketatik igaroz.

Sarrera bikoitzeko taula da, eta bertan emakumeen arazoa aztertzeko garaian eman diren bost ikuspegi nagusiak adierazten dira. Estrategia ezberdin hauek eredu ideal bezala erakusten dira, eta horrek esan nahi du nahiz hurrenkera kronologikoa eraman, berez, horietako batzuk aldiberean eta bata bestearen gainean ere azaldu direla.

Goitik behera irakurrita, ikuspegi gehien zabaldu zen garaia erakusten digu, jatorria, hura agertzea eragin zuten arazoen zergatiak, lortu nahi diren helburuak, eta zein premia eta zerbitzu jotzen diren lehentasunezkoak emakumeei dagokienez.

MEDen hurbilpenak ez dira bere hurrenkera kronologikoan hartu behar, duten ikuspegiaren arabera baizik. Hau da, MEDen lehen hurbilpenak Berdintasunaren ikuspegiz jokatu zuen, baina erakunde mailan helburu horiek ez onartuak izatearen ondorioz Txirotasunaren Aurkako ikuspegi bihurtu zen (2. hurbilpena), eta gero Eraginkortasunarena. Hurbilpenek MED ikuspegiaren bilakera, emakumeak garapen prozesuan sartzeko ahaleginean. Kontuan izan behar da epealdiak orientagarriak direla eta ikuspegi batzuk aldiberean ematen direla, eta gaur egun ere ari direla burutzen.

*“Hainbat erakundek, nazio mailan nahiz nazioarte mailan, ez dute batere garbi emakumeekiko ihardunbidearen ikuspegia. Ondorengo sailkapenaren helburua, erabaki politikoak antolatzen eta hartzen dituztenei beren eskuhartzeak dituzten eraginak argiago ikustarazten laguntzea da, Hirugarren Munduko emakumeei laguntzeko garaian dituzten indar eta mugak ezagutaraziz”. (Moser, 1993).*



II. Taula. Hirugarren Munduko emakumeei zuzendutako politiken ikuspegi desberdinen laburpena

GAIK	ONGIZATEA	POBREZIAREN AURKA	ERAGINKORTASUNA	BERDINTASUNA	BOTERETZEA
<b>Aldi Nagusia</b>	-1950-70 baina gaur egun asko erabiltzen da.	-1970etik aurrera: egun oraindik badu indarra.	-80etik aurrera: egun zabalduena da.	-1975-85: Emakumearen Hamarraldia.	1975etik aurrera: indar handiagoa du 80an, eta egun, ez du ia.
<b>Sorburuak</b>	-Gizarte ongizatearen ereduaren hondarrak, administrazio kolonialaren barruan. -Garapen ekonomiko modernizazio eta hazkunde bizkor bidez.	MED (2. hurbilpena): -Jasotako gaitzespenen aurrean apaldu egin du berdintasunaren tonua. -Birbanaketarekin lotua, oinarrizko hazkunde eta premiak dituela.	MED (3. hurbilpena): -Gaur egun nagusi da. -Munduko ekonomiaren hondamena. -Egokitzapen eta egonkortasun politikak. Emakumeen partaidetza eskatzen du (kostuak murrizteko) krisi ekonomikoko aldietan.	MED ikuspegia (1. hurbilpena): -Modernizazioaren porrota. -Boserup(i) eta 1. munduko beste feminista batzuen eragina Percy Emendakina(ii) izenekoan. - Emakumearen Hamarraldiaren aldarrikapena.	Hurbilpen berriena: -Berdintasun estrategiaren porrotetik sortu zen. -Hegoaldeko feministen eta oinarrizko antolamenduen lanak.
<b>Arazoen zergatia</b>	-Kontrolaz kanpo dauden gorabeherak.	-Baliabide ezak eragiten duen bizi-maila eskasa.	-Garapen planifikatzaileen porrota, emakumeek produkzioan duten funtsezko zeregina eta horiek bertan sartzeko premia onartzean.	-Emakumeen patriarkatua, esplotazioa, menperakuntza eta zapalkuntza gizonen eskutik.	Gizonek ez ezik, zapalkuntza kolonialak eta neo-kolonialak emakumeak menperatzea.
<b>Helburuak</b>	-Emakumeak ama hobeak bezala barneratzea, garapenean bete dezaketen eginkizunik garrantzitsuena hori dela joaz.	-Emakume behartsuek beren produktibitatea handituko dutela ziurtatzea. Emakumeak garapenean barneratzea. -Emakumeen pobrezia azpigarapenaren ondorioa da, eta ez menperakuntzarena.	-Garapena eraginkorragoa eta emankorragoa izan dadila bermatzea. -Emakumeen partaidetza ekonomikoa = berdintasuna	-Emakumeentzako berdintasuna lortzea garapen prozesuan. -Emakumeak partehartzaile aktibo bezala ikusiak dira.	-Emakumeei botere gehiago ematea buruaskitasun handiagoaren bidez. -Egitura ekonomiko, politiko eta sozial berriak eraikitzea. -Esplotazio egiturak gaitztea.
<b>Estaltzen dituzten emakumeen premiak eta onartzen dituzten zereginak</b>	-Generoaren premia praktikoak ugalketarako zereginen.	-Generoak dirusarrera bat lortzeko duen premia praktikoak.	-Krisi ekonomikoaren ondorioz gizarte zerbitzuen hondamenaren barruan generoaren premia praktikoak estaltzea, emakumeen hiru zereginetan eta bere denboraren malgutasunean oinarrituz.	-Generoaren premia estrategikoak. -Emakumeen zeregin hirukoitza. -Estatuaren partaidetza zuzena eta bertikala. -Autonomia ekonomikoa eta politikoa erdieste, gizonekiko desoreka murriztuz.	-Generoaren premia estrategikoak emakumeen hiru zereginetan, generoak zapalkuntzari aurre egiteko dituen premia praktikoak ahaztu gabe.
<b>Programak eta zerbitzuak</b>	-Elikadura laguntzarako programak. -Famili plangintza. -Nutrizioa (famiaren osasuna hobetzea, batik bat amek adin txikikoak zainduz). -Generoaren zenbait premia praktiko erdiesteko iharduerak.	-Emakumeei gaitasun teknikoak buruzko heziketa ematea. -Tamaina txikiko dirusarrerak sortuko dituzten iharduera eta proiektuak, oinarrizko premiak estaltzeko (generoaren premia praktikoak).	-Generoaren premia praktikoak erdiesteko programak.	-Egituren eraldaketarako antolatzea. -Generoaren premia estrategikoak erdieste zeregin hirukoitzari begira.	-Generoaren premia estrategikoak estaltzera zuzendutako programak zeregin hirukoitzari begira, behetik gorako mobilizazioaren bidez, generoaren premia praktikoaren inguruan.
<b>Aldaketa mota</b>	-Aldaketa funtzionala (ez mehatxatzailea).	-Aldaketa funtzionala (ez mehatxatzailea).	-Aldaketa funtzionala.	-Egiturazko aldaketa (desafiatzaile, eskubide berdintasuna).	Egiturazko aldaketa (desafiatzaile).
<b>Aitzindaritz mota</b>	-Konfiantza handia agintean (patriarkalean). -Gizarte ongizatearen hondar-eredua, kolonizazioan oinarritutako modernizazioaren ideologia duela.	-Aholku bidezkoa. -Patriarkatua eta emakumeen menperakuntza indartzen duten baloreen berregite ideologikoa.	-Agintezkoa/Aholku bidezkoa. -Emakumeak baliabide bat bezala ikusten dira.	-Partehartzailea, egiturak eraldatzeko. -Estatuak goitik behera parte hartuko du, desoreka hori murrizteko.	-Aukera emalea, partehartzailea, solidarioa, beldurra gaitztea (emakume eta gizonen egitura alternatibo orekatuak). -Behetik gora.
<b>Zerbitzu mota</b>	-Emakumeak garapenean onuradun pasiboak direla onartzen da.	-Emakumeak garapenean barneratzea. -Emakume behartsuak kategoriatan bezala isolatzea. -Emakumeen zeregin produktiboa aitortzea.	-Egonkortasun eta egokitzapen ekonomikorako politikak, emakumeak barneratzearen menpe.	-Erreforma, askapena. -Garapenean partehartzaile aktibo gisa jotzen diren emakumeak.	-Eraldaketa, askapena, gobernuaren edo agentzien laguntzarik gabe nagusiki. -Finantzaketa gutxiko borondatezko antolakuntzek mailaz maila ugariagotzea.

Iturria: OXFAM, 1997 - Moser, C. 1995

(i) Boserup, E. (1970) *Woman's Role in Economic Development*, New York: St. Martins Press. Bere azterketak frogatu zuen, berez beren komunitateetako oinarrizko produktibitateari laguntzen ziotenak emakumeak izan arren, bereziki nekazaritzan, beren ekarpen ekonomikoa ez zela islatzen ez nazio estatistiketan ez garapen proiektuen burutzapenean. Hirugarren Munduko Emakumeen zeregin produktiboaren aurkikuntza izan zen, eta berebiziko garrantzia izan zuen ikuspegi hau eraiki-tzeko.  
(ii) MED taldeak 1973. urtean egindako presioaren ondorioz, Estatu Batuetako Kongresuak Estatu Batuen Garapenerako Kooperazio Legearen Percy Emendakina onetsi zuen, emakumeak garapenean aldeko ahaleginetan barneratzeari begira. Emakumeen arazoa nazioarteko kooperazioko programa, proiektu, txosten eta balioespen guztietan aztertu beharko litzateke.

# 4. NOIZ ETA ZEIN MAILATAN DA BEHARREZKO GENERO IKUSPEGIA ANTOLAKUNTZA BERAREN GARAPENEAN?

4.1. NOIZ DA BEHARREZKO GENERO

AZTERKETA?

4.2. ZEIN MAILATAN DA BEHARREZKO GENERO IKUSPEGIA

ANTOLAKUNTZA BERAREN GARAPENEAN?

4.2.1. POLITIKA MAILAN

4.2.2. PROZEDURA MAILAN

4.2.3. PERTSONALAREN MAILAN

## 4.1. NOIZ DA BEHARREZKO GENERO AZTERKETA?

*“Genero azterketa egokia ez zaion proiektu bakar bat ere ez dago, non eta pertsonak parte hartzera bultzatzen ez dituen”.*

*“Emakume eta gizonen zeregin estereotipatuak ez dira onartu behar azterketarik egin gabe. Emakume eta gizonen arteko harreman, zeregin eta erantzukizun horien ezberdintasunei buruzko ezagutza zehatzak lagunduko digu ikuspegi zehatzak proposatzen”.*

*“Programa edo proiektu zikloaren lehen fasetik bertatik egin beharko litzateke, bere osotasunaren kontzeptu eta egiturari eragin baitiezaioke”.*

*“Beronen bizitza-zikloaren bidezko etengabeko plangintza, burutzapen eta balioespen prozesu osoaren funtsezko alderdia da. Genero azterketa, erabilera jarraia duen tresna bat bezala onartu beharko litzateke”.*

(FINNIDA, 1995).

## 4.2. ZEIN MAILATAN DA BEHARREZKO GENERO IKUSPEGIA ANTOLAKUNTZA BERAREN GARAPENEAN?

Erakundeen mintzaldiaren eta praktikaren artean koherentzia egon dadin, proiektu edo programetan eragiteaz gain, antolakuntzaren proposamen orokorrari ere eragin behar zaio. Proiektuen burutzapenean funtsezko elementu bat da ezagutzea eragindako erakundeak zenbateraino diren gauza generoagatiko desorekak hauteman eta alternatiba egokiak aplikatzeko. Garrantzitsua da gobernuz kanpoko erakundeen, erakunde publikoen eta enpresen arteko bereizketa egitea.

*“Proiektuan parte hartzen duten antolakuntzen “GENERO GAITASUNA” aztertu beharko litzateke, emakumeen egoera indartzeko gauza izango diren balioestearren”.*

(German Agro-Action, 1997).

A. Walker-ek dioenaren arabera (Gender-Handout, 1997), gaitasun hori hiru mailatan aztertu behar da: Politika mailan, prozedura mailan, pertsonalaren mailan.

#### **4.2.1. POLITIKA MAILAN**

Antolakuntza mota, iharduketa eremu nagusienak, eta proiektuak planifikatu eta burutzeko gaitasun orokorra.

Garapenean genero ikuspegiarekin loturiko politika.

Genero mailako ondorioak eduki ditzakeen antolakuntzaren politika (adib.: erabakimen postuetara iristeko aukera, amatasun edo aitatasunagatiko baja, erreklutatzea, sustapena, etab.)

Bere eginkizunarekin eta xede-taldeekin loturiko politika, programa eta iharduera desberdinen arabera.

Burututako iharduerak eta antolakuntzaren esperientzia, bi ikuspegi horietako bat barneratzean.

Heziketa gaitasuna GEDen.

Antolakuntzaren barruan helburu horiek barneratzeko dauden eragozpen eta erraztasunak.

Argitalpenak, Gida-liburuak, sexista ez den mintzaira bat erabiltzea, etab.

#### **4.2.2. PROZEDURA MAILAN**

Antolakuntzaren iharduerak erregulatzen dituzten prozedura formalak edo informalak (barneraketak/kanporaketak).

Antolakuntzaz kanpoko iharduerak erregulatzen dituzten prozedura formalak edo informalak. Horretan diharduten antolakuntza desberdinak baldin badaude, zein da horien artean espero litekeen genero kooperazioa?

#### **4.2.3. PERTSONALAREN MAILAN**

Antolakuntzaren barruan emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren maila.

GED ikuspegia barneratuko duen antolakuntzaren egitura.

Emakume eta gizoni, beren gaitasunak gauzatu eta antolakuntzan aurrerapenak egitea ahalbidetuko dieten aukerak hautematea (adib.: heziketarako aukera izatea).

Antolakuntzaren maila desberdinetan (bulego nagusia/lurraldea) pertsonalak genero gaiei buruz dituen ulerkerak eta horiek nola eragiten dieten beren lanean.

**Laburbilduz, kontuan hartu beharko genuke:**

Garapen ikuspegia argitu den eta nola barneratu diren bertan genero harremanak.

Ikuspegi hori erakundeen politiketan islatu den.

Erakundeen iharduketa estrategiek koherentziaz erantzuten dioten azaldutako genero proposamenei.

Barruko bizitzak antolakuntza eta pertsonalaren mailan kontsekuenteki erantzuten dion erakundeen erantzunak proposatutako genero osagaiei.

Aurrerapenak balioesteko jarraipenezko mekanismoak sortu diren.  
(GTG, 1997).

# P

## 5. ROIEKTUETAN EMAKUME ETA GIZO- NEN ARTEKO BER- DINTASUNA JORRAT- ZEKO HIRU MODU

5.1. POLITIKA ZEHATZAK

5.2. POLITIKA NEUTRALAK

5.3. BIRBANAKETA POLITIKAK

*“Garapen Agentzia eta GKE askoren helburua ‘pobrezia arintzea’ izan da, eta beren xede-taldea, berriz, ‘pobreak’. Berez, beren arau eta prozedurek ziurtatzen dutenez, talde aukeratu batek bakarrik jasotzen ditu horrelako politiken onurak. Xede-talde izateko ‘familia buruak’ bilatu ohi dira, edo bestela, arau jakin batzuk finkatzen dira, hala nola, etxe bateko kide batek bakarrik izango duela baliabideak eskuratzeko aukera. Gehienetan, arau eta prozedura horien emaitza gisa, dirusarrera urriko etxeetako gizonei ematen zaie batik bat laguntza, emakumeak baztertuak geratzen direlarik (baita emakumeak ‘Etxeko Nagusi’ direnean ere)”. (Kabeer, 1995).*

Emakumeek, iharduera mota eta diseinuaren arabera, modu desberdinez parte hartzen eta lortzen dituzte onurak proiektuetan. Horregatik, beren partaidetza eta lortu beharreko onurak ahalik eta handienak izan daitezen, genero ikuspegia iharduketa politikoetan gauzatzeko modu desberdinak aztertu behar dira.

N. Kabeer-en arabera (Kabeer, 1995), eragindako erakundeek generoaz kontzientzia handiagoa izateak hiru iharduketa estrategia desberdin eta hiru proiektu mota bidera ditzake:

1. Politika Zehatzak.
2. Politika Neutralak.
3. Birbanaketa Politikak.

## 5.1. POLITIKA ZEHATZAK

Sexu baten nahiz bestearen premia zehatzak onartuz gero, zenbait politika bidera ditzakegu, emakumeei onurak ekar diezaizkieketen iharduera eta baliabideak errazteari begira, dauden desorekak kasu askotan zalantzan jarri gabe.

**Proiektu motak:** Proiektu zehatzetan emakumeak dira partehartzaile nagusiak eta xede-taldea.

**Adibidea:** Emakumeek mailegua eskuratzeko eragozpen gehiago izan ohi dute, eta beraz, berentzako mailegu bide zehatzak sortu behar dira .

### Noiz izan daiteke egokia?

Kultur eta erlijio tradizioek ez dutenean uzten emakumeek eta gizonek batera lan egin dezaten.

Kultur tradizioek, komunitatean parte hartzea eta gizonen iritziekin bat ez datozen adierazpenak egitea eragozten dietenean emakumeei.

Gizonen migrazioak emakumeei zeregin eta erantzukizun berriak sortu dienean.

Emakumeen talde autonomoek proiektuaren eragile, antolatzaile eta egile bezala parte hartzen dutenean.

Emakumeek gizonek baino hezkuntza gutxiago jaso eta berdinak bezala parte hartzeko heziketa behar dutenean.  
(OIT, 1991).

### III. Taula. Politika zehatzak. Abantailak eta eragozpenak

IKUSPEGIAREN ABANTAILAK:	IKUSPEGIAREN ERAGOZPENAK:
<p>Emakumeen premiei erantzuteko malgutasun handiagoa, eta bereziki, bere partaidetza bultzatzeko heziketa motei buruzko premiei.</p> <p>Erabakiak hartzeko aukera handiagoak izatea, eta aitzindaritza eginkizunak bere gain hartu ahal izatea. Beraz, komunitatean autoestimu eta errespetu gehiago duela esan liteke.</p> <p>Emakumeen eremutik kanpo daudela jo ohi diren ekimenak bere gain hartu, eta ikusmolde berri batetik bere ekarpenak erakutsi ahal izatea.</p> <p>Proiektuan emakumeen antolakuntza sendo eta jasangarriak sortu ahal izatea, emakumeen ekimenetarako laguntza bat izan daitezkeelarik.</p>	<p>Emakumeak iharduera nagusietatik isolatzeko arriskua.</p> <p>Proiektu horiek emakumeen aldeko ahaleginen adierazle gisa erabiltzeko arriskua.</p> <p>Ongizatearen orientabidea barneratzeko joera, emakumeen boteretzea bultzatzen duten iharduerak barneratu beharrean.</p>

(OIT, 1991).



## 5.2. POLITIKA NEUTRALAK

Ikuspegi hau, proiektuaren helburuak modu eraginkorrago batez burutu daitezela ziurtatzeko dauden baliabide eta erantzukizunen banaketari buruzko informazio zehatz batean oinarritzen da. Lanaren sexu banaketa, erantzukizunak, baliabideak, etab. hartzen dituzte kontuan, ez horiek zalantzan jartzeko, baizik talde bakoitzari bere eremu jakinean iharduera batzuk zuzen-tzeko.

**Proiektu mota:** emakumearen osagai bat duten proiektu bezala dira ezagunak. Alegia, emakumeentzat bereizitako iharduerak proiektu zabalago edo integratuago batean biltzen dituzte. Askotan, giza eta finantza baliabideak xedatzen dira horrelako ihardueretarako.

**Adibidea:** Emakumeek eta gizonek etxearen mantenuari laguntzen diote beren dirusarreraren bidez, eta beraz, mailegua eskuratzeko aukera, bientzat bilatu behar da. Proiektu integratuaren barruan, emakumeei zuzendutako iharduera zehatz bat burutzen da, esate baterako: maileguaren kudeaketarako gaitasun edo trebetasunei buruzko heziketa edo alfabetatzea, alfabetaturik ez badaude.

### Noiz izan daiteke egokia?

Kultur eta erlijio tradizioek ez dutenean uzten emakumeek eta gizonek batera lan egin dezaten.

Emakumeek heziketa edo beste iharduera batzuk bereizirik nahi dituztenean, proiektuaren barruan erabakiak hartzerakoan eginkizun bat betetzen dutela eta beronen emaitzen gainean kontrol bat dutela ziurtatzeko.

Beharrezkoa denean emakumeak beren eskubideez jabeaztea eta beren konfiantza indartzea.

Proiektu orokorraren hautapen irizpideak emakumeen partaidetza mugatu dezakeenean.

Emakumeek gizonek baino hezkuntza arautu gutxiago jaso eta berdinak bezala parte hartzeko heziketa gehigarria behar dutenean.

(OIT, 1991).

## IV. Taula. Politika neutralak. Abantailak eta eragozpenak

IKUSPEGIAREN ABANTAILAK:	IKUSPEGIAREN ERAGOZPENAK:
<p>Emakumeek ziurtatua dute proiektuaren baliabideak eskuratzeko aukera.</p> <p>Emakumeek eta gizonek aukera berdinak dituzte proiektuaren iharduera nagusietarako, hala nola, heziketa edo enplegurako.</p> <p>Emakume osagaiak , gainerako proiektuarekin batera, ikusgarritasun eta arreta gehiago jasotzen du plangintza egiten dutenen aldetik.</p> <p>Osagaiaren zenbait alderdi proiektu orokorrarekin egoki koordinatzeko aukera handiagoak.</p>	<p>Ez badago ongi diseinatua edo burutua, emakumeen iharduerak proiektu nagusitik bazterreratzea ekar dezake.</p> <p>Emakumeak barneratzean, gobernuei, agentzia emaileei edo garapen agentziaren betebeharreri mesede egiteko erabiltzeko arriskua dago, gainerako partehartzaileei eskaintzen zaizkien baliabide berak eskaini gabe.</p> <p>Ez dakar sakoneko aldaketarik.</p>

(OIT, 1991).

### 5.3. BIRBANAKETA POLITIKAK

Dauden genero harremanak norabide demokratikoago batean aldatu nahi dituzte, baliabideak, erantzukizunak eta boterea emakumeen eta gizonen artean birbanatuz. Aukera hori da plangintzan erronka gehien sortzen duena, zeren eta, emakumeentzako baliabideak bideratzeaz gain, gizonek ere erantzukizunak bere gain har ditzatela bilatzen baitu, garapen proiektu eta programen emaitzetan berdintasun handiagoa lortzeari begira.

**Proiektu mota:** Politika honen ondoriozko proiektu motaren helburua, emakumeei eta gizonei aukera berdintasuna ahalbidetzea da partehatzaile eta onuradun gisa, baliabide eta onurarako aukera eta kontrola bermatuz eta atzemandako premiak estaliz, emakumeak boteretu daitezen eta beren menpekotasuna areagotu ez dadin.

**Adibidea:** Gerta liteke, emakumeei mailegua eman arren, etxeko botere-harremanen ondorioz gizonak baliabideez jabetzea, horiek ordaintzeko erantzukizuna emakumeen gainean utziz. Horrelakoetan, emakume eta gizonen arteko baliabideen banaketa desorekatu horrek bere

horretan jarraituko luke. Birbanaketaren osagaiak lagundu egingo luke helburuak lortzen, emakumeen premiak asetzen dituen elementu praktiko hori (mailegua) elementu estrategiko bilakaraziz, hartara, bere bizimodu aukerei buruzko autonomiaren zentzua eraikitzen lagunduko bailioke (bere eskubide propioak baieztatuz, bere aurrezkietarako toki segurua, bestelako sareetan sartzeko aukera, kooperatibak, etab.).

### **Noiz da egokia?**

Kasu guztietan.

Emakume kopuru zabal batek proiektuaren bidez zehaztutako irizpideak betetzen dituenan (hezkuntza maila, gaitasunak, sarreraren betebeharrak, etab.).

Emakumeen eta gizonen arteko partaidetza bateratu baten adibide bat dagoenean alde zurretik.  
(OIT, 1991).

Ikuspegi desberdin hauek ez dira elkarren artean deuseztatzen. Zenbait testuingurutan gerta liteke, generoen politika neutral edo zehatzak burutzeak emakumeei baliabide berri eta sozialki balioetsiak eskaintzea, beren negoziazio boterea indartuz eta familiaren nahiz komunitatearen barruan duten egoera berriz negoziatzen lagunduz.

# 6. **G**ENEROAREN PLANGINTZA

## 6.1. GED IKUSPEGIA BARNERATUZ. LABURPEN BAT

## 6.2. GENEROAREN PLANGINTZA

### A. ERREMINTAK

A.1. Komunitate batean genero-harremanak aztertzeko erreminta kontzeptualak:

A.1.1. Lanaren sexu/genero banaketa

A.1.2. Baliabide eta onuren eskuragarritasun nahiz kontrolaren azterketa

A.2. Garapen iharduketa bat planifikatzeko erreminta kontzeptualak

A.2.1. Premia praktikoak eta interes estrategikoak

A.2.2. Partaidetza mailak

A.2.3. Eraldaketa potentziala

A.2.4. Erakundeen azterketa

### B. GENEROAREN PLANGINTZA FASEAK

B.1. Diagnostikoa

B.2. Helburuak

B.3. Jarraipena

B.4. Kontsulta eta partaidetza

B.5. Generoaren sarrera estrategia

## 6.1. GED IKUSPEGIA BARNERATUZ. LABURPEN BAT

Jarraian, genero ikuspegiaren ideia eta osagai nagusienak laburbilduko ditugu, kausazko barne-erlazio bat dagoela nabarmenaraziz:

### 4. HELBURUA

Garapen jasagarria, berdintasunezkoa eta partehartzailea.

### 3. GARAPEN EKINTZAK

Genero azterketak eta komunitateko botere-harremanen azterketa.  
Emakume eta gizonekin kontsultak finkatzea.  
Emakume eta gizonen egoera eta premia praktikoak ezagutu/aztertzea.  
Emakumeen egoera eta interes estrategikoak ezagutu/aztertzea.  
Komunitatearen interes estrategikoak aztertzea, ekonomikoki eta politikoki indartzeko.

### 1. KOMUNITATEAREN EGOERA

Komunitateak konplexuak dira.  
Bi zergadun nagusi: emakumeak eta gizonak.  
Bi ikuspegi desberdin: emakumeena eta gizonena.  
Emakumeen egoera menpekotasunezkoa da.  
Lanaren sexu-banaketa: emakumeen lana gutxiago balioesten da.  
Hiru lan kategoria: ekoizpena, ugalketa eta komunitatekoa.  
Emakumeak eta gizonak: baliabide eta onuren gaineko kontrol eta aukera desberdinak.  
Emakumeak, oro har, erabakiak hartzetik baztertuak dira.  
Erakundeek emakumeen menpekotasuna iraunarazi egiten dute.  
Genero harremanak aldatuz doaz denbora eta espazioan zehar.

### 2. GARAPEN ESTRATEGIAK

Emakume eta gizonen beren garapen propioa ("Boteretzea") kolektiboki zehazteko aukera ematea.  
Emakumeen eta gizonen baliabide, aukera eta botere politikorako aukerak areagotzea.  
Emakumeak eta gizonak beren garapen propioaren eragile nagusietan inplikatzeko.  
Genero harremanak eraldatzea.  
Eragin/onura berdintasuna lortzea.

(CCIC, 1991).

## 6.2. GENEROAREN PLANGINTZA

*"Dauden proposamen metodologikoen barruan, generoaren plangintza geroz eta indar handiagoz doa aurrera, eta azken urteotan nortasun propioa lortzen ari da. Horren helburua, emakumeak beren menperakuntzatik burujabetzea eta oreka, berdintasuna eta "boteretzea" lortzen laguntzea da". (Moser, 1995).*

Generoaren plangintza, gizarte eraldakuntzara mugatzen denez, prozesu errepikakor bat da, mailaz mailako eta elkarrekiko harremana duten urrats ezberdinen fase multzo batek osatua, plangintzaren edozein etapatan barneratu daitezkeelarik. Fase horietako bakoitzak, generoaren plangintza printzipioetatik datozen erreminta metodologiko kopuru bat erabiltzen eta barneratzen du. Fase horiek, aldi berean, generoaren plangintzako praktikaren lau osagai ezberdinetan biltzen dira (ikus C puntua: Genero praktikaren osagaiak) (Moser, 1995).

Hiru elementu horiek hots, erreminta metodologikoen, generoaren plangintza faseek eta generoaren plangintzako praktikaren osagaiak osatzen dute, orokorrean harturik, generoaren plangintzaren testuingurua.

### A. ERREMINTAK

Generoaren azterketak kontzeptu edo "erreminta analitiko" kopuru bat biltzen du, garapenaren praktika gidatu dezaketenak.

Erreminta horiek genero harremanen azterketan sakontzen laguntzen dute, eta aukera ematen digute diagnostikorako eta proiektuen diseinurako galderak nola plangintzarako gidak eta jarraipen irizpideak lantzeko, aldaketa prozesuak neurtzeko diseinatutako "iharduera adierazle" bilakatu. Halaber, alor horretako heziketarako eta garapenaren praktikarako funtsezko kontzeptuak eskaintzen dituzte. (CCIC, 1991).

#### A.1. KOMUNITATE BATEAN GENERO-HARREMANAK AZTERTZEKO ERREMINTA KONTZEPTUALAK

##### A.1.1. Lanaren sexu/genero banaketa

Emakumeak nahiz gizonak beren etxe eta komunitateak mantentzeko lan egiten dute, baina beren lana ezberdina da izaera eta balioz. Ezberdintasun horiek funtsezko alderdia dira genero ha-

rremanetan. Gizarteak eginkizun, erantzukizun, iharduera eta botere ezberdinak izendatu dizkie emakumeei eta gizonei, egokia jotzen denaren arabera, horiei gizarte balioespen bat emanez.

Hori da lanaren sexu banaketa, edo zehazkiago esateko, lanaren genero banaketa deitzen dena.

Banaketa eta gatazka iturri da, baina lotura, elkarmenpekotasun, elkartruke eta kooperazio iturri ere bai biziraupen premiak asetzeko.

Gerta liteke emakumeen lanaren izaera eta izaria ez ikustea, baldin eta banaketa horren kontzientziarik ez badago. Halaber, kultura eta une historiko bakoitzak berezkoa du. Komunitatez komunitate alda liteke, eta etxeetako baldintza aldakorretara egokitzen da (kide nagusirik eza, diru-sarrerak aldatzea edo esku-diruaren premia, tokian tokiko garapen proiektuen eragina, heziketa-ren ondorioak, etab.)

Funtsezko galderak:

Nola antolatzen da lana proiektuak eragindako komunitateetan?

Zer lan burutzen dute emakumeek eta neskek (ordaindua izan ala ez)?

Zeintzuk dira lan banaketa honen ondorioak programaren edo proiektuaren helburuak lortzeko?

Dagoen lanaren banaketak indartu ala kontra egiten dio proiektuari?

(CICC, 1991).

"Lanaren Genero Banaketa" eta sexuz izendatutako rolen arteko erlazioa funtsezko alderdi bat da genero harremanetan. Lehenengo hori sozialki eta ekonomiki zehaztutako iharduereen banaketari dagokio, hots ondasunen eta biziaren ugalketari, eta bigarrenak, aldiz, generoarekin loturiko arau eta baloreak nola zeregin horietako bakoitzarekin uztartutako jokaera eta portaerak biltzen ditu.

Funtsezko galderak:

Zer eratako lana burutzen dute emakumeek eta gizonek?

Proiektuak nola eragingo dio emakumeen eta gizonen produkzio, ugalketa edo komunitate lanari, eta lan mota ezberdin horiek nola eragiten diote proiektuari?

(CICC, 1991).

## V. Taula. Emakumeen rol hirukoitza

EMAKUMEEN PRODUKZIO ROLA	EMAKUMEEN UGALKETA ROLA	KOMUNITATEAREN KUDEAKETA ROLA
<p>Familiarentzako dirusarrerak dakartzaten iharduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan ordaindua: adib. Soldatapeko lanak, kudeaketa lanpostuak edo profesionalak.</li> <li>- Lan ordaindugabea: adib. Familiaren baratza edo ukuiluan lan egitea.</li> </ul>	<p>Familiaren baliabideak areagotzen dituzten etxeko iharduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ardurak: umeak izan, hazi, hezi, etab.</li> <li>- Mantenua: janaria egin, garbitu, etxerako elikagaiak hazi, ura bildu, etab.</li> </ul> <p>Ez dago sozialki balioetsia eta ez da lana kontsideratzen.</p>	<p>Komunitateko baliabideak hornitu eta izendatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Insumoak bildu eta banatzeko kolektiboaren kontsumorako, adib. Ur garbia, medikuntza zerbitzuak, etab.</li> <li>- Batzordeko kideak izatea, nahiz garrantzizko postuak sarritan gizonezkoek betetzen dituzten.</li> </ul>

(ODA, 1995).

Horietako arlo batean burutzen den edozein iharduerak gainerakoei eragingo die. Emakumeen lan zamak garapen proiektuetan parte har dezatela eragotz dezake. Iharduerari edo heziketari eskainitako denborak beste eginkizun batzuetarako denbora gutxiago izatea ekar dezake, hala nola familiako kide direnen zainketa edo janarien prestakuntza.

Emakumeek eta gizonek burututako lanaren azterketa beharrezkoa da:

Komunitateak burututako lan guztia ezagutzeko.

Proiektuek komunitateko eginkizun sozial eta ekonomikoen oreka konplexuaren gainean duten eragina planifikatzeko.

Emakumeen lan zama murrizteko.

Emakumeek proiektuetan parte hartuko dutela ziurtatzeko.

Lan mota ezberdinak burutzeko erabilitako denbora, maiztasuna, sasoia eta egoera eza-gutzeko.

(CICC, 1991).



## A.1.2. Baliabide eta onuren eskuragarritasun nahiz kontrolaren azterketa

Produkzio, ugalketa eta komunitate lana **baliabideak** erabiltzea eskatzen du.

Honelakoak izan daitezke:

Ekonomikoak edo produktiboak: lurra, ekipoak, erremintak, enplegua, mailegua, heziketa, etab.

Politikoak: ordezkariak taldeak, aitzindariak, hezkuntza eta heziketa, etab.

Denbora: aisialdia, iharduera alternatiboak, heziketa.

Lanean parte hartzeak eta baliabideak erabiltzeak, oro har, **onurak** dakarzkie pertsonai, etxeei eta komunitateei.

Honelakoak izan daitezke:

Oinarrizko premiak hornitzea, hala nola, elikagaiak, jantziak, etxebizitza, dirusarrerak, etab. Jabetza.

Hezkuntza eta Heziketa.

Botere politikoa, ospea, statusa eta aukerak interes berrietara jo ahal izateko.

Emakumeen menpekotasunezko egoerak, baliabide eta onuren gainean duten eskuragarritasuna eta kontrola murriztu dezake.

ESKURAGARRITASUNAK zera esan nahi du: baliabide jakin batzuk erabiltzeko aukera izatea, premia eta interes pertsonal nahiz kolektiboak asetzeko.

KONTROLAK zera esan nahi du: baliabideak erabiltzeko eta horien aplikazioari buruz erabakiak hartzeko aukera izatea beti. Horien erabilera edo emaitzari buruz erabakiak hartzeko boterea edukitzea esan nahi du.

*"Emakumeek lurra eskuratzeko aukera izan dezakete, baina ez lurraren edo beren jabegoaren erabilerari buruzko kontrola."*

*"Emakumeek tokian tokiko prozesu politikoetan parte hartzeko aukera izan dezakete, baina eragin eta kontrol gutxi dute aztertu beharreko gaien izaerari eta azken erabakiei buruz."*

(CICC, 1991).

Baliabide eta onuren eskuragarritasun eta kontrolari buruzko informazio ezak okerreko usteak eragin ditu emakumeek lor dezaketenari buruz eta proiektuetatik izango dituzten onurei buruz.

Funtsezko galderak:

**Baliabideak:**

Zein baliabide dute eskuragarri emakumeek eta gizonek?

Zein baliabide dute beren kontrolpean?

Zer eragin ditu eskuragarritasunak eta kontrolak proiektu/programarentzat?

Nola lagun dezake proiektu batek emakumeek baliabideen eskuragarritasun eta kontrol handiagoa izan dezaten?

**Onurak:**

Zer onura jasotzen dute emakumeek eta gizonek produkzio, ugalketa eta komunitate lane-  
tik eta baliabideak erabiltzetik?

Zer onuren gainean dute kontrola?

Nolako eraginak ditu horrek programa edo proiektuan?

Nola lor daiteke emakumeek onuren eskuragarritasun eta kontrol handiagoa izan dezatela?  
(CIC, 1991).

## **A.2. GARAPEN IHARDUKETA BAT PLANIFIKATZEKO ERREMINTA KONTZEPTUALAK**

### **A.2.1. Premia praktikoak eta interes estrategikoak**

Pertsonen ongizatea erdietsi nahi duten garapen proiektuek bereizketa bat egin behar dute emakumeen bizi baldintzen eta gizartean duten egoeraren artean.

BIZI BALDINTZAK, emakumeen esperientziaren testuinguru hurbila adierazten digu: buru-  
tzen duten lan mota, beretzat eta bere familiarentzat dituen premiak (edateko ura, elikagaiak,  
hezkuntza, etxebizitza, etab.).

EGOERAK, emakumeek gizonen aldean duten gizarte eta ekonomia maila adierazten digu.  
Soldata ezberdintasunen bidez, enplegu aukeren bidez, maila exekutibo eta legislatiboetan duten  
partaidetzaren bidez eta pobrezia-erikiko eta indarkeria-erikiko menpekotasunaren bidez neur daite-  
ke.

Komunitate batean emakumeek, gizonek, neskek eta mutikoek pobrezia eta desabantaila bal-  
dintza berdinak eta hobekuntzen premia berdinak eduki ditzakete, hala nola, osasun zerbi-tzuak,  
elikagai egokiak, edateko ur hornidura, etab. Halere, baldintza horiek eta horietatik eratortzen di-  
ren premiak modu ezberdinean bizi dituzte.

**Premia praktikoak** emakumeen baldintzekin loturik daude. Bizi baldintza asegarriekin eta baliabide ezarekin lotu eta parekatu ohi dira.

**Interes estrategikoak** gizartean duten desabantailazko egoeraren ondorio sortzen dira. Egituzko aldaketak epe luzera begira gertatzen dira. Emakumeen eginkizuna indartzea (aukera gehiago, baliabideen eskuragarritasun handiagoa eta gizonekin batera erabakiak hartzean partaidetza orekatuagoa izan dezaten), emakume eta gizon gehienen interes estrategikoen zati izango litzateke.

Emakumeen egoeraren aurrerapenaren zenbait adierazle dira ondokoak:

Emakumeek erabakiak hartzeko garaian aktiboki parte har dezatela onartzea, bai gizonek eta bai emakumeek ere.

Emakumeen antolakuntza berriak, ikusgarritasun eta eraginkortasun gehiagorekin.

Emakumeen lege-egoeran aurrerapenak egitea.

Emakumeen aurkako indarkeria murriztea.

Beren ugalkortasunari buruzko kontrol handiagoa.

Genero gaiei buruzko kezka publikoa areagotzea.

(CICC, 1991).

Genero ikuspegi bat hartzeak ez du esan nahi premia praktikoak alboratu uztea. Horiek estaltzea aurrebaldintza bat da emakumeak "boteretu" daitezen. Emakumeen eta gizonen premiak praktikoak hauteman, negoziatu eta aztertu egin behar dira, aldi berean emakumeen interes estrategikoak aztertu daitezen.

*"Nekazaritzako proiektu batek emakumeak proiektuaren plangintzan barneratuko ditu, beste emakume nekazari batzuekiko partaidetza bultzatuko du, emakumeak jarriko ditu nekazari-tzako aholkulari edo teknikari lanpostuetan eta emakumeen premia teknikoez eta lanaren murrizpenaz arduratuko da". (MacDonald, 1994)*

## VI. Taula. Premia praktikoak eta interes estrategikoak

<b>GENEROAREN PREMIA PRAKTIKOAK BIZI BALDINTZARI BURUZKOAK DIRA</b>	<b>GENEROAREN INTERES ESTRATEGIKOAK GIZARTEAN DUTEN EGOERARI BURUZKOAK DIRA</b>
<p>Beren bizi baldintzetatik datozen iharduera eta arazo praktiko eta egunerekoetara mugatzen dira: beren gorabehera material eta berehalakoak.</p> <p>Adib.: ur eskasia, gehiegizko lan zama, elikagai eskasia, osasun zerbitzurik eza, etab.</p> <p>Helburua beren egungo egoera hobetzea da (epe laburrera).</p> <p>Adib.: ur-putzuak bilatzea.</p>	<p>Beren egoera zehazten duten gizarte eta kultur arau eta tradizioetara mugatzen dira: generoak boterea, statusa eta erabaki eta baliabideen gaineko kontrola erabakitzen duen modua.</p> <p>Adib.: Erakundeen diskriminazioa ondoko esparruetan: jabetza, lana, hezkuntza, erabakiak hartzean, etab.</p> <p>Helburua gizartea aldatzea eta emakumeak "boteretzea" da.</p> <p>Adib.: lege diskriminatzaileak ezabatzea, emakumeek erabakiak hartzean partaidetza handiagoa izatea.</p>

(Walker, 1997).

Bi kategoria hauek erreminta analitiko bezala oso erabilgarriak diren arren, praktikan gainezarrri egiten dira sarritan. Adibidez: emakume batzuek beren herriko merkatuan ongi moldatzeko alfabetatu beharrak abantaila estrategiko bat bil dezake bere baitan, hots, epe luzera aukera eman-go die komunitatearen antolamenduan edo heziketa ikastaroetan parte hartzeko.

Bestetik, arriskutsua da premia praktikoak aztertzen dituzten proiektuei babes ematea esate baterako, dirusarrerak interes estrategikoak kontuan izan gabe. Dirusarrerak sortzeko iharduerak babesten dituzten proiektu horiek, kontabilitate, antolamenduen kudeaketa... arloko heziketa osagairik gabe, dauden genero desorekak indartu ditzakete, eta emakumeei proiektuaren onurei buruzko kontrola galarazten die.

### A.2.2. Partaidetza mailak

Genero azterketak emakumeen nahiz gizonezkoen ahalik eta partaidetzarik handiena bul-tzatzen du garapen iharduera guztietan.

Epe laburreko zenbait ekintzen bitartez, emakumeek onurak lortzen dituzte premia praktiko batzuk estaltzen baitzaizkie. Nolanahi ere, erabakiak hartzeko gaitasuna eta beren statusa handitzen baldin badira, epe luzerako onurak handiagoak izango dira.

GEDaren helburuetako bat emakumeak aldaketa eragile gisa bultzatzea da planifikatzaile, kudeatzaile, antolatzaile, aholkulari, batzordeetako kide eta hezitzaile gisa proiektuaren iharduera maila desberdinetan. Ildo horretatik, aldi bereko estrategiak behar dira, dauzkagun egituretan emakumeak txertatuko dituztenak eta proiektuetan beraiantzat aukerak sortuko dituztenak garapenaren eragile bihur daitezten. Horretarako garrantzitsua da eguneroko lanean beraiekin harremanak dituzten eragile publiko, pribatu eta sozial desberdinekin solaskidetza, adostasun eta negoziazio gaitasuna handitzea.

Proiektuetan parte hartzea bultzatzeko zenbait arrazoi:

- Partehartzaileengan boterea sortu ahal izatea.
- Trebakuntza gaitasunak eskaintzea.
- Proiektuen eraginkortasuna hobetzea.
- Proiektuen emankortasuna hobetzea.
- Proiektuaren kostuak eta onurak partekatzea.
- Pertsonen bizi-kalitatea proiektuen bidez hobetzea.

(Rede Mulher de Educação, 1996).

### A.2.3. Eraldaketa potentziala

Emakumeen menpekotasunezko egoera ez da egoera estatiko bat, eta egoera hori ez dute bizi denek berdin. Genero harremanek, gizarte mailako eraikuntzak diren aldetik, beren eraldaketarako potentziala dute berekin.

Gizarte gehienetan emantzipazio prozesuak burutzen ari dira bizi-baldintzak hobetzen dituztenak, desorekak aztertuz eta emakumeen egoera hobetuz.

Horregatik, proiektuen plangintzan "Eraldaketa Potentziala"ren kontzeptua barneratu behar dugu, genero harremanetan eta emakumeen egoeran aldaketa gidatzeko potentzial handiena duten alternatibak zeintzuk diren jakin ahal izan dezagun.

Funtsezko galderak:

- Proiektuak berekin al du aldaketarako hazia?
- Partehartzaileek, beste iharduera batzuetan lagungarri izango zaizkien konfiantza eta gaitasunak bereganatu al dituzte?

Proiektuak babesa ematen al die aipatutako gai horiek antolatu eta aztertzeke ahaleginei?  
Sortu al da elkartasunik eta sarerik beste talde batzuekin?  
(CICC, 1991).

#### A.2.4. Erakundeen azterketa

Garapen ekintzetan, bitartekoak helburu bilakarazteko asmoz baliabideak mugiarazten direnean erakundeen testuinguru jakinetan bakarrik gauzatzen da.

*"Generoa harreman desorekatu gisa eraikia dago erakunde desberdinen arau eta praktiken bidez, isolatuki nahiz beren arteko elkarrekintzen bitartez. Garapen prozesuan giltzarri diren erakunde horiek merkatua eta estatua dira, etxeak eta komunitatea". (Kabeer, 1995).*

Genero ikuspegi batek, iharduera zehatzak burutzen direneko erakundeen oinarrizko testuinguruan hartu behar ditu kontuan genero harremanak, eta azertu zein alderdi aldatu edo berregin behar den, generoarekin hertsikien loturik dauden erantzunen diseinurako aukerak zehaztu baino lehen. Alegia, lege eta kultur araudi berri bat sortu behar da, berdintasunezko ikuspegi batetik indarreango sexu-genero sistemak emakumeei eskaintzen dizkien desabantaila eta aukerak aldatuko dituen.

Zer bilatzen dugu?

Emakumeak eta gizonak presente dauden erakunde desberdinen arau eta prozeduren abstrakzioa egitea.

Horien izaera ezagutzea, emakumeak diskriminatzen dituzten edo emakume eta gizonen partaidetzan ezberdintasunak eta desorekak ezartzen dituzten zehazteko.

Arau horiek emakumeei eta gizonei era desberdinean aplikatzen zaizkien aztertzea, ezberdintasun formalak egiten al diren, erabakiak hartzeko aukeretan berdintasuna al dagoen, eta halaber, zeintzuk diren emakumeak parte hartzeko uzkur bilakarazten dituzten faktoreak edo nork bere burua uzkurtzera daramatenak.

Arau eta baliabideek, eragindako erakundeen praktika nola egituratzen duten egiazta-tzea.

Funtsezko galderak:

Nola antolatuko da erakundea?

Nola burutuko da iharduera?

Nola hartuko dira erabakiak erakunde horretan eta iharduera horiei buruz?

(GTG, 1997).

## B. GENEROAREN PLANGINTZA FASEAK

Generoaren plangintza, fase kopuru batek osaturiko prozesu bat da, mailaz maila doazen eta une batzuetan aldi berean ematen diren urratsetan banatua. Fase horiek ondorengo hauek dira:

- B.1. Diagnostikoa.
- B.2. Helburuak.
- B.3. Jarraipena.
- B.4. Kontsulta eta partaidetza.
- B.5. Generoaren sarrera estrategia.

### B.1. *DIAGNOSTIKOA*

Generoaren diagnostikoa garapenaren arazo nagusiaren oinarrian dagoen mekanismoa ulertzea da, iharduketari, politikari, programari eta proiektuei begira, baita genero harremanen arabera duen inplikazioari begira ere.

**Diagnostikoaren lehen fasean** genero rola, baliabideen eskuragarritasun eta kontrola, genero premiak, erakundeak eta emakumeekin loturiko iharduketa politika aztertzen dira.

**Bigarren fasean** generoaren arazoa antolatzen da, kausa eta eraginaren hierarkizazio eskema baten arabera, horri zer irtenbide eman dakioken zehazteko asmoz. Diagnostikoa iharduera jarraia da, plangintza zikloaren une garrantzitsu guztietan erabilia. (Moser, 1995).

### B.2. *HELBURUAK*

Diagnostikoan nagusi diren arazoen zehaztapenetik datoz, eta zein genero premia hautatu behar diren eta hori lortzeko estrategiak zeintzuk diren zehazten duen agenda zehatz baterako oinarri dira. Helburuak nahiz diagnostikoa prozesu baten zati dira, eta prozesu horrek generoaren premia praktiko eta estrategikoen birzehaztapena eta egokitzapena bideratzen du, plangintzaren edozein unetan sartu ahal izatea ziurtatuz. (Moser, 1995).

### B.3. *JARRAIPENA*

Genero plangintzaren erremintetatik datozen galdera zehatzak eginez has daitezke jarraipena eta ebaluazioa. Hurrengo adibideak erakutsiko digu nola erabil daitekeen genero rolen zehaztapena bezalako erreminta bat (kasu honetan produkzio rola) jarraipenean:

Zein da proiektuaren eragina emakumeen produkzio rolari dagokionean?

Programak/proiektuak emakumeentzat eragin positiboa ala negatiboa izango al du:

Lurra eskuratu dezaten, eta bereziki, etxean eta merkatuan kontsumoko elikagaiak lantze-ko nekazaritza lurra eta etxebizitzarako hirilurra eskuratu dezaten?

Enplegu ordaindurako eta dirusarrerak sortzen dituzten beste ihardueretarako aukerak lor ditzaten, batez ere emakumeek dirusarrerak erdiesteko dauzkaten baliabideak ezaba-tzen edo murrizten direnean?

Familiako kideek iharduera ekonomikoetan lan egin dezaten edo teknologia berria sar da-din?

Mailegua eskuratu dezaten, batez ere emakumeentzako elkarkidetzazko akordio formalak ez dauden tokietan?

Trebakuntza edo informazioa eskuratu dezaten?

Beren produkzio lanak dirusarrerak eman ditzan?

Oinarrizko zerbitzuak beregana ditzaten, hala nola, garraioa, ura eta erregaia?

(Moser, 1995).

#### **B.4. KONTSULTA ETA PARTAIDETZA**

Eztabaida, negoziazioa eta gatazken konponketa oinarritzat duen plangintza metodologia bat da. Kontsulta eta partaidetza prozedurarik garrantzitsuenak eta konplexuenak dira.

A.2.2. erremintan jorratu dugu lehendik alderdi hori, nahiz honakoa ere azpimarra litekeen:

Emakumeen partaidetza helburu bat da berez. ("boteretzea")

Emakumeen partaidetza proiektuen emaitzak hobetzeko bitarteko bat da (proiektuaren kos-tuen eraginkortasuna, emankortasuna eta berreskurapena lortzeko bitarteko bat).

Iharduera sektorialetan parte hartzeak beste esparru batzuetan ere parte hartzera bultza-tzen du (gaitasun baten garapena).

(Moser, 1995).

#### **B.5. GENEROAREN SARRERA ESTRATEGIA**

*"Sarrera Estrategia bat lehentasunezko akzio taktikoen multzo bat da egoera sozio-ekonomiko eta politiko jakin batean maniobrarako espazio bat zabaltzeko, lortu nahi diren genero iharduketak eragotzi edo irauli ditzaketen mugak gainditzeko, eta baliabide baten erabilpenak edo hori sustatze-ko aukerak eskaini lezakeen potentziala erabiltzeko". (Moser, 1995).*



Testuinguru zehatz batean genero plangintzaren bidez zer lor daitekeen zehazten du funtsean:

**Lehen fasea:**

Generoaren diagnostikotik eta kontsulta eta partaidetzatik ondorioztzen diren genero helburuak erabiliz gero, zehaztu liteke zein puntu kritikotan erdietsi ditzaketen generoaren premia praktikoen premia estrategikoak.

**Bigarren fasea:**

Erakundeen egiturak eta beren eragiketa-prozedurak aztertuz ondorioztzen diren mugak eta aukerak finkatzen ditu. Fase honen helburua, plangintza agenda praktika eraman ahal izango dela ziurtatzea da. Sarrera puntuaren zehaztapenaren barruan biltzen dira aukera politiko estrategikoak.

### **C. GENEROAREN PRAKTIKAKO OSAGIAK**

Genero plangintzaren bilakaera eta zehaztapenak ez du ziurtatzen praktikan burutzapen on bat egingo denik. Horrek ez du esan nahi plangintza praktikek barneratuko dituztenik, antolamendu egiturek erakundeetan jasoko dituztenik, edo horrekin zerikusirik duten pertsona profesionalak genero kontzientziazko erabakirik hartuko dutenik.

4. Kapituluaren aipatu dugun bezala, praktika horretan kontuan hartu eta, hala dagokionean, aldatu beharreko osagaiak ondokoak lirateke:

1. Antolamenduen egitura. Beren muga teknikoak eta politikoak.
2. Eragiketa prozedurak.
3. Horrekin zerikusirik duten planifikatzaileen jokaera.
4. Erakundeak. Aukerak eta eragozpenak.  
(Moser, 1995).

# **G**ENEROAREN AZTERKETA ETA PLANGINTZA PROIEKTU BATEN ZIKLOAN APLIKATZEA

BIGARREN ZATIA

## SARRERA

Beren helburuak lortzeari begira, garapenerako ekintza guztiek zenbait urrats jasotzen dituzte, eta horiei, orokorrean hartuta, proiektuaren bizitza-zikloa deitzen zaie.

Prozesu hori ez da linealki garatzen. Etengabeen jira-biraka dabil, eta errealitatetik sortzen diren datuetan oinarriturik burututako azterketa, plangintza eta erabaki eginkizunak birraztertu eta sakontzeko aukera ematen digu.

Laburbilduz, proiektu guztiek hiru fase dituzte ezinbestean: identifikazioa, formulazioa eta burutzapena/jarraipena/balioespena. Eta, nahiz kontuan hartu behar diren testuingurua eta proiektu mota eta hedadura, jarraian adierazten diren ezaugarriek kasu guztietarako balio dute, tratamendu egoera bakoitzarekin batera aldatzen den arren. Datu bilketak, esate baterako, forma, kantidad eta kalidade ezberdinak bilduko ditu, proiektu bakoitzaren konplexutasun mailaren arabera. (Rede Mulher de Educação, 1997).

# 1. IDENTIFIKAZIOA

1.1. EGOERAREN AZTERKETA

1.2. PARTEHARTZAILEEN AZTER-  
KETA

1.3. ARAZOEN AZTERKETA

Identifikazioaren helburua, ekintza baten bidez hobetu daitekeen egoera bat hautematea da. Azken helburua, abiarazi beharreko ekintzak aukeratzea da.

**I. Taula. Identifikazio fasea**

<b>ZER</b>	<p><b>1. EGOERAREN AZTERKETA BAT EGITEA:</b></p> <p>Arazoak, gizarte eragileak, interesak, ikuspegiak, itxaropenak, eragozpenak eta potentzialitateak, ondokoak kontuan izanik:          Baldintza geografikoak eta demografikoak.          Xede-taldea:              Familien osakera.              Lanaren genero banaketa.              Baliabideen eskuragarritasun eta kontrola.              Egoera sozio-politikoak.          Erakunde partehartzaileak:              Pertsonal teknikoak genero ikuspegi bat bereganatzeko gaitasuna, horien sentsibilizazioa eta esperientzia zehaztea.              Ikertzea talde onuradunek (emakumeek eta gizonek) erakundeak onartzen dituzten.              Erreminta eta prozedura horiek genero azterketarako egokiak direla ziurtatzea.          Genero eta garapen politiken testuingurua.          Alderdi horiek guztiak aztertzerakoan, generoaren premia praktikoak eta interes estrategikoak zehaztean eragina duten faktore guztiak hartzen dira kontuan.</p> <p><b>2. ALTERNATIBAK ZEHAZTEA, SARRERA ESTRATEGIAK BARNERATUZ:</b></p> <p>Arazoen irtenbideak balioetsi eta hautatzea, generoaren premia praktikoak eta interes estrategikoak kontuan hartuz.</p>
<b>NOLA</b>	<p><b>3. BIGARREN MAILAKO DATU GARRANTZIZKOAK BERRIKUSI ETA DAGOZKION PERTSONA ETA ERAKUNDEEI KONTSULTA EGITEA:</b></p> <p>Genero gaietarako funtsezko pertsonak.          Gobernu erakundeak eta GKEak, batez ere emakumeenak.</p> <p><b>4. SEXUEN ARABERA BEREZITAKO DATUAK BILDU ETA AZTERTZEA:</b></p> <p>Zenbait metodo eta teknika erabiliz, hala nola, Landa Diagnostiko Partehartzailea(1), taillerak eginez, talde onuradunekin topaketak eginez, GKEekin, etab.</p>
<b>NORK</b>	<p><b>5. PLANGINTZA TALDEA:</b></p> <p>Tokian tokiko bi talde partehartzailek (talde onuraduna, gobernu erakundeak, GKEak, etab.) osatua, bertako nahiz kanpoko aholkularitzekin lankidetzan:          Genero alorrean landako esperientzia izanik.          Metodo partehartzaileak ezagutuz eta menperatuz.          Administrazio partehartzailea eta lankidetzazkoa menperatuz.</p>

(Rede Mulher de Educação, 1996).

(1) Landa Diagnostiko Partehartzailea: 70eko hamarraldiaren bukaeraz geroztik garatutako informazio bilketarako metodo partehartzaile ezberdin bat da, datuen bilketarako metodo formalei atxikitako arazoetako batzuk gaintzeari begira. (GTZ, 1995).

## 1.1. EGOERAREN AZTERKETA

Arazoak, horrekin zerikusirik duten gizarte eragileak, interesak, ikuspegiak, itxaropenak eta potentzialitateak zehaztea da proiektu bakoitza hasteko aldez aurreko baldintza. Lortutako informazioa ezinbesteko baldintza da proiektuaren talde onuradunak nola zehaztutako arazoei konponbide bat emateko beharrezko iharduerak ezagutzeko.

### II. Taula. Egoeraren azterketako elementuak eta horien erremintak

EGOERAREN AZTERKETAKO ELEMENTUAK	GENEROAREN AZTERKETARAKO ERREMINTAK
<p><b>1. Azterketa geografiko eta demografikoa</b></p>	<p>Datuen bereizketa sexuen arabera (aldagai demografiko eta sozial guztietarako)</p>
<p><b>2. Talde onuradunaren azterketa:</b>            Lanaren sexu-banaketa.            Baliabideen eskuragarritasun eta kontrola.            Egoera sozio-politiko eta erabakiak hartzean duten partaidetza, bai familia/etxe eta komunitate mailan eta bai gizarte mailan ere.            Premia praktikoak eta interes estrategikoak.            Taldeen kategoria bakoitzaren ezaugarriak: interesak, potentzialitateak, mugak, premiak eta eskakizun bereziak, burutu beharreko proiektuari dagokionean.</p>	<p>Datuen bereizketa sexuen arabera, sektore sozio-ekonomikoa, etnia, erlijioa, adina... bezalako alderdiak aztertuz, eta atalen barne-bereizkuntza.            Ihardueren ezaugarriak eta errenta.            Baliabideen eskuragarritasun eta kontrolaren ezaugarriak.            Emakumeen eta gizonen egoera sozio-politikoaren ezaugarriak.            Erabakiak hartzeko moduaren ezaugarriak.            Erakundeetako partaidetzaren ezaugarriak.            Generoaren premia praktikoaren eta interes estrategikoaren ezaugarriak.            (Ikus Ezaugarriak III. Eranskinean)</p>
<p><b>3. Erakundeen azterketa:</b>            Talde onuradunaren antolamenduak.            Proiektuaren antolamendu exekutiboak.            Antolamendu laguntzaileak edo horretan zerikusirik dutenak.</p>	<p>Erakundeen ezaugarriak genero alorrean.</p>
<p><b>4. Genero eta garapen politiken testuinguruaren azterketa</b></p>	<p>Birbanaketarako politika berezi neutralak eta politika ofizialak izango lirateke.</p>

(Rede Mulher de Educação, 1996).

Egoeraren azterketak oinarrizko bi gai aztertzen ditu: arazoa eta arazoarekin zerikusirik duten eragileak. Horregatik, bi une edo azterketa mota biltzen ditu: partehartzaileen azterketa eta arazoaren azterketa.

## 1.2. PARTEHARTZAILEEN AZTERKETA

Analisi hau ondokoen erantzuna da:

Nortzuk dira?

Nortzuk hartzen dute parte? Emakumeek, gizonezkoek, biek?

Zer oztopo daude emakumeek parte har dezaten? Oztopo horiek zein neurritan jasotzen dute emakumeen interesak proiektuaren burutzapenean agertzeko antolamenduek duten gaitasuna (edo gaitasun eza)?

Ondorengo taula, adibide moduan, partehartzaileen azterketa baten laburpen bat da Malawiko arrantza proiektu batean. Bertan, eragindako talde ezberdinak, beren interesak, potentzialitateak, mugak, premiak eta eskakizun bereziak zehazten dira, burutu beharreko proiektuarekiko erlazioan.

Adibide honek erakusten digu horretan zerikusirik duten taldeen aniztasuna, eta halaber, emakumeak premien diagnostikoan presente egon izanaren baieztapena.

### III. Taula. Partehartzaileen azterketa

TALDEAK	INTERESAK	POTENTZIALA	MUGAK	PREMIAK	PROIEKTUAREN ESKAERAK
Emakumezko eta gizonezko arrain-hazleak.	Dirua eta elikadura.	Lurra, ura, lan indarra eta zenbait intsumo.	Arrantza ihardueren ustiapenerako eredu egokirik ez.	Ezagutza egokia/ teknologia.	Landa hedapenerako zerbitzua/ laguntza teknikoa.
Gizonezko arrain-hazle potentzialak.	Dirua eta elikadura.	Idem.	Eredu egokirik eta ekipamendurik ez.	Ezagutza egokia, teknologia eta arrain-haztegien eraikuntza.	Idem.
Emakumezko arrain-hazle potentzialak.	Dirua eta elikadura.	Lurra, ura eta zenbait intsumo.	Eredurik ez, lan indar nahikorik ez eta hasierako kapitala.	Idem, hasierako kapitala sartuz.	Landa hedapenerako zerbitzura bideratutako teknikak.
Emakumezko arrain-hazleen elkarreak.	Dirua.	Lurra, ura.	Eredu egokirik eta antolaera formalik ez.	Idem, hasierako kapitala sartuz.	Idem.
Ekipamendu eta materialen birsaltzaileak.	Salmentak eta merkatua areagotzea.	Intsumo guztiak dituzte.	Arrainentzako elikagai eskasia.		Aholkularitza zerbitzuak.
Emakumezko arrainketariak.	Dirusarrerak sortzea.	Baliabide ez aprobetxatuak/ potentzial ezezaguna.	Kapitalik ez, gizonezkoen konpetentzia, merkaturako garraio eskasa.	Kapitala, sektorearen boteretzea, enpresa gaitasunak, garraioa, eskolatzearen hobekuntza.	Kreditua, garraio bitartekoak, kudeaketan gaitzea eta boteretzea.
Arrainaren prozesaketan diharduten emakumeak (gatzaketa eta keztaketa)	Dirusarrerak sortzea.	Baliabide ez aprobetxatuak/ potentzial ezezaguna.	Kapital eskasa, arrainak eskuratzeko mugak, eta intsektuen erasoengatikoko galerak.	Kapitala, taldearen boteretzea, kudeaketa gaitasunak, eskolatzearen hobekuntza, merkaturako garraioa, arrain prozesaketaren teknologia, eta intsektuen erasoan aurkako babesak.	Goikoa bezala, keztatzeko labea eta berau erabiltzeko gaitasuna gehiturik.
Arrantzaleak.	Arrantzarako hedatutako eremua.	Arrantza ihardueretan gaitasunak.	Arrain stock agortuak, arrantza gaitasun garatu gabeak, arrantzale kopuru handia.	Arrantzarako aukera, arrantza teknika berrietan gaitzea, arrantza tresna eta lanabes egokiak.	Arrain eskuratuen stock baten administrazioa, hedapen zerbitzua, ontzi kopurua handitzea, legeria zehatz eguneratua.

(Rede Mulher de Educação, 1996).



### 1.3. ARAZOEN AZTERKETA

Hartutako ikuspegiak eta erabakitzen diren iharduketak, arazoaren zehaztapenean eta irtenbideen bilakuntzan erabilitako azterketa motaren arabera izango dira. Hortxe datza fase honen garrantzia. Ondoko galderak biltzen ditu:

Zein da arazoa?

Nola aurkezten da aldatu nahi den egoera hori?

Nortzuk hartzen dute parte horretan?

Nortzuk dira beste eragileak?

Proiektuaren ideia hori parte hartzen duten pertsonen arazo nagusienekin loturik al dago?

Nola ikusten dute arazoa xede-pertsonak edo taldeek eta gainerakoek?

Arazoa konpontzeko moduari buruzko ikuspegiak bat al datoz azaldutako egoera horrekin?

Lortu nahi diren alternatibekin loturik dauden pertzepzioak zeintzuk dira? Amankomunak dira, ala ezadostasunak al daude horretan parte hartzen duten eragile ezberdinen artean?

Proposatutako helburuak erdiesteko gauzatutako ahaleginak zeintzuk dira? Bide horretan gaurdaino dagoen esperientzia nolakoa da?

Zuzenean parte hartzen duten taldeen ekintzetan eragina duten testuinguruko baldintza nagusienak zeintzuk dira?


Zein da modu gehigarrian garatu ahal izango den ekintzaren potentziala?

Zein da parte hartzen duten pertsonen ekintza gehigarriko potentziala erabili ahal izateko beharrezko kanpo laguntza?

(Rede Mulher de Educação, 1996).

Jarraian adibide bat azaltzen dizuegu, eta bertan, dauden arazo nagusienak zehaztu ondoren, arazo nagusi bat aukeratu da berau aztertua izan dadin. Ondoren, arazo nagusi horren funtsezko eta zuzeneko arazoak eta funtsezko eta zuzeneko eraginak zehaztu dira. Horiek garatu egin dira, arazoaren zehaztasun bat osatu arte. Egun Garapen Agentzia Ofizial eta GKE gehienek erabiltzen duten Marko Logikoaren ereduak mugatutako egoera azterketaren urratsetako bat da. Adibide honetan argi ikusten da emakume eta gizonen ikuspegitik zehaztu dela arazo hori.

#### IV. Taula. Arazoen zehaztasun baten adibidea (CCE, 1993)



## 2. **F** ORMULAZIOA

2.1. PLANGINTZAREN MATRIZA

2.2. ADIERAZLEAK

Formulazio prozesuaren bidez helburu orokor eta zehatzak mugatzen dira, lortu nahi diren emaitzak eta burutu beharreko iharduerak eta horien programazio tenporala zehazten dira, eta halaber, erabili beharreko bitartekoak eta kostuak, finantzaketa iturriak eta eragiketa estrategiak, baita jarraipen eta balioespen estrategiak ere, finkatzen dira.

## V. Taula. Formulazio fasea

<b>ZER</b>	<p><b>1. PROIEKTUARENTZAT ESTRATEGIA OROKOR BAT TAXUTZEA:</b></p> <p>Kontuan izanik generoaren interes praktikoak eta estrategikoak, baita generoaren politika ofizialaren jarraipideak ere.</p> <p><b>2. PARTAIDETZA DUTEN ERAKUNDEEKIN PROIEKTURAKO BEHAR DEN ANTOLAMENDU ETA FINANTZA EGITURA ADOSTEA, HORIETAN GENERO IKUSPEGIA HAR DADILA ZIURTATZEARI BEGIRA.</b></p> <p><b>3. PROIEKTUAREN PLANGINTZA MATRIZA LANTZEA (PPM):</b></p> <p>Helburuak, emaitzak, iharduerak eta generoen arabera bereizitako adierazleak zehaztuz. Adierazle horiek aurrebaldintza bat dira generoaren jarraipen eta balioespen sistema baterako.</p>
<b>NOLA</b>	<p><b>4. PLANGINTZA PARTEHARTZAILEA:</b></p> <p>Talde onuradunaren (emakume eta gizonen) partaidetza aktiboa ahalbidetzen duten metodologiak erabiltzea.</p> <p>Plangintzaren oinarria egoeraren azterketaren emaitzak izatea.</p> <p>Talde onuradunaren premiekin bat etorritik lekua eta ordua aurrikustea, emakumeen denbora libre urria kontuan izanik, eta beharrezkoa bada, talde jakin bakoitzarekin topaketa bereziak egitea.</p> <p>Plangintza metodoak biztanleria analfabetoarentzat egokitzea.</p> <p>Pertsona partehartzaile guztiek (talde onuraduneko emakume eta gizonak, GKEek, tokian tokiko erakundeak, etab.) beren ikuspuntua adierazteko aukera berak eduki ditzatela ziurtatzea.</p>
<b>NOR</b>	<p>Talde onuraduneko emakume eta gizonak, tokian tokiko erakundeak, GKEak, agentzia emaileak eta aholkularitzak. Funtsezkoa da genero espezialistak edukitzea.</p>

(Rede Mulher de Educação, 1996).

## 2.1. PLANGINTZAREN MATRIZA

Proiektuaren deskribapen objektibo eta laburtu bat ahalbidetzen duen tresna bat da, horren elementu funtsezkoenak bateratuz. Garapen proiektuaren helburu orokorra, helburu zehatza, emaitzak, helmugak, iharduerak, intsumoak eta arriskuak, eta aurreusteak biltzen ditu.

Proiektuaren zenbait alderdiren arteko harremana logika bertikal baten bidez deskribatzen da, proiektu hori sortu zeneko arrazoiak eta burutzeko modua argitzen dituelarik. Logika horizontalak dio proiektuaren emaitzak modu argi, benetako eta egiaztagarri batez adieraziko direla. (Rede Mulher de Educação, 1996).

VI. Iaula. Piangintza Matriz batean generoarekiko sentikortasuna egiaztatzeko galderak. Generoaren ikuspegitik PPM baten osagaien adibide bat (CCE, 1993).

PROIEKTUAREN EGITURA	ERRENDIMENDUAREN ADIERAZLEAK	ADIERAZLEAK NOLA EBALUATU	SUPOSIZIOAK, ARRISKUAK ETA LITEZKE? BALDINTZAK
<b>HELBURU OROKORRAK</b> Helburu zabalenean emakume eta gizonen premiei erantzuten al diete?, ba al du zerikusirik helburu zehatzak aukeratzeak emakume eta gizonen artean eginkizunak eta ardurak banatzerakoan?	<b>HELBURU OROKORRAK</b> Gobernuaren edo erakunde garrantzitsuenen politika zehatzekin duen koherentzia aztertzea. Zenbateraino eskaintzen zaie arreta generoaren arazo zehatz zabalenean politika edo erakunde mailan?	<b>HELBURU OROKORRAK</b> Nazio mailan antolatutako pertsona partehartzaileek datuak eskaini ahal izango dituzte? Zein datu-iturri alternatibo erabil daitezke koherentzia aztertzeko?	<b>HELBURU OROKORRAK</b> Testuinguru politikoak eta lege giroak aukerarik ematen al du emakumeek eta gizonen parte hartzeko helburuak lortzeko begira? Giro politikoa ikuspegi partehartzailearen aldekoa al da? Politika eta erakunde arloak lagungarri al dira sektoreko ihardueretarako?
<b>HELBURU ZEHATZAK</b> Helburuek zehazten al dute nori zuzenduak dauden eta nor nahi den proiektuaren onuradun izatea, emakume eta gizonen arteko bereizkuntza eginez? Nork hartzen du parte erantzun behar den premia aniztasunaren aukeraketan? Proiektuak emakume eta gizonen zein premia praktikoa eta estrategikori erantzuten dio?	<b>HELBURU ZEHATZAK</b> Kalitate eta kantitate adierazleak: Zeintzuk dira emakume eta gizonentzako hobekuntza eta aldaketak? Nor nahi da onuradun izatea lanaren genero banaketan eta lortutako baliabideen gaineko eskuragarritasun eta kontrolean? Adierazle horiek xede-taldearen partaidetzarekin batera zehaztu al ziren? Hobekuntza eta aldaketa horiek zenbateraino eragingo diote sexuen arteko harremanari?	<b>HELBURU ZEHATZAK</b> Une egokian burutu al da generoaren azterketa hori, ihardueren helburua finkatzeko oinarri izango dena? Ba al dago estrategiarik eragozpenei aurre egiteko? Kontuan hartu al dira pertsona partehartzaileek eraginari buruz dituzten iritziak tarteko eta/edo azkeneko balioespenetan?	<b>HELBURU ZEHATZAK</b> Politiken babesa jasotzen al dute helburuek? Ba al dago nazio edo eskualde mailan aurrikusitako hobekuntza horiek osatu edo, alderantziz, arriskuan jar ditzakeen beste iharduerarik? Kontuan hartu al dira iharduera horiek, ala horiekin batera ezar litezkeen loturak aurrikusi al dira?
<b>EMAITZAK</b> Emaitzak: Sexuen arabera zehaztuak al daude? Koherenteak al dira hautatutako taldeen premiekin?	<b>EMAITZAK</b> Zer lortu da emakume eta gizonentzat ondoko arloetan? - teknologia egokiaren erabilera. - proiektuaren lagungarri diren neurri politiko egokietan. - ingurugiroaren babeserako neurrietan. - erakunde eta administrazioaren gaitasunak sortzean. Nortzuk (emakumeak eta/edo gizonak, adina, gizamaila, etnia) izan dira emaitza bakoitzaren onuradun? Zein neurritan eta zeren arabera hartu dute parte emakumeek eta gizonen?	<b>EMAITZAK</b> Behin-behineko txostenek (jarraipen eta balioespenekoek) biltzen al dute datu koalatiborik eta koantitatiborik sexuaren arabera bereiziak?	<b>EMAITZAK</b> Xede-taldeko emakume eta gizonen egoera politikoa mehatxu bat al da generoekin bereziki loturik dauden proiektuko emaitzentzat? Ba al dago nahikoa motibaziorik, gaitasunik eta antolamendurako ahalmenik xede-taldearen baitan eta erakunde elkartuetan genero izaria kontuan duten iharduerak sustatzeko eta horietan parte hartzeko?

---

**ESKAINITAKO BITARTEKOAK:**

egokiak al dira eskainitako irtekoak emakumeek eta gizonen artean? Zer parte har dezaten? Zer dago astirik eta aurrekonturik

guztira hartzeko eta generoa erabiltzeko? Aurrekontuak malguak berrikus daitezkeenak al dira? Zer dute denboraren mugak, generoen mugak

premiak? Zer gaitasunak ahalik eta oneratuena erabiltzen al dira genero heziketa arloetan?

**ESKAINITAKO BITARTEKOAK:**

Zein neurritan zaizkie eskuragarri emakume eta gizonen proiektuaren ondasunak, zerbitzuak eta aukerak? Ba al

dago ustekabekoen kapitularik lan planean eta aurrekontuan? Egin al da partaidetzaren jarraipen eta balioespenik? Zer baliabide eskaini zaio

emakumeen premia estrategikoen arloari?

**ESKAINITAKO BITARTEKOAK:**

Jarraipen bisitaldietan, pertsonalaren bileretan, autobalioespenetan eta behin-behineko edo behin-betiko

balioespenetan, egiten al zaie galderarik partehartzaileei erabilitako bitartekoak egokiak al diren jakiteko?

**ESKAINITAKO BITARTEKOAK:**

Partaidetza plana arrazoizkoa al da tokian tokiko oztopoei dagokienean (sasoikoak, kulturalak, bereziki generoarekin

loturik, finantza arlokoak edo beste mota batekoak), emakumei parte hartzeko aukera, konfiantza, gaitasuna eta onarpena ematea aurrikusiz? Egokiak al dira

adituen zerbitzuak genero alorrean, eta garaiz hartzen al dute parte?

Jarraian, artisau erako arrantzaren proiektu baterako marko logiko baten adibide sinplifikatu bat azaltzen da, produkzio/merkaturatze katean emakumeen eta gizonen artean dagoen lan-banaketaren arabera, eta emakumeen eta gizonen ardura, premia, oztopo eta potentzialitate ezberdinak kontuan izanik.

**VII. Taula. Artisau erako arrantzaren proiektu baterako Plangintza Matriz adibide sinplifikatua (CCE, 1994)**

**IHARDUKETARAKO LOGIKA**

HELBURU OROKORRA	X ESKUALDEKO ARRANTZALE KOMUNITATEETAN HOBETU DIREN BIZI-BALDINTZAK		HIPOTESIAK
HELBURU ZEHATZA	(A) emakumeen dirusarrerak artisau erako arrantzako gaien produkzio eta merkaturaketan, (B) moneta unitateetan gehiturik.	(X) arrantzaleen dirusarrerak (Y) moneta unitateetan gehiturik.	1. Nahikoa ondasun, lehen mailako premiak asetzeko eskuragarri direnak. 2. Nahikoa gizarte zerbitzu eskuragarri (ura, osasuna, hezkuntza).
EMAITZAK	(A) emakumeek arraina eraldatu eta merkaturatzea, ondoko eran gehiturik: (C) Kg. arrain freskoa (D) Kg. arrain keztatua, eta (E) Kg. arrain lehortua sasoialdi bakoitzeko (espezieka zehaztua)	(X) arrantzaleek harrapatutako arrainak, ondoko eran gehiturik: (M) Kg. sasoi bakoitzeko (N) espeziean; (Y) Kg. sasoi bakoitzeko (Z) espeziean, etab.	1. Arrain fresko eta landuaren hornidura gehituetan nahikoa eskaera. 2. Merkatariek eta/edo merkatal etxeek ez dituzte baztertu emakumezko arrain-saltzaileak.
IHARDUERAK	1. Emakumeak lankidetzazko taldeetan antola daitezela erraztea, arraina landu eta merkaturatu dezaten. 2. Tratamendu hobeturako teknologietan emakumeei heziketa eskaintzea. 3. Prozesaketarako intsumo egokiak beren eskura jartzea (lehorketa taulak, biltegiak...) 4. Garraioaren eta merkaturatze sistemen eta/edo kooperatiben antolamendua erraztea. 5. Emakumeek kredituak eskuratu ditzatela erraztea eta horren kudeaketan trebatzea. 6. Proiektuko pertsonalari heziketa ematea emakumeei nahiz gizonei produkzioan lagun diezaieten. 7. Etab.	1. Arrantzaleak lankidetzazko taldeetan antolatzea. 2. Arrantzaleei teknika hobetuei buruzko heziketa ematea. 3. Intsumo egokiak (ontziak, motorrak, arrantza tresnak) beren esku jartzea. 4. Epe ertainerako kreditu sistema bat antolatzea. 5. Arrantza leku potentzialei buruzko informazio egokia eskaintzea. 6. Arrantzaleen artean itunak ezartzea arrantza baliabideen kudeaketari buruz. 7. Etab.	

(Taulan agertzen diren letra larri horiek balizko kopuruak lirateke).

## 2.2. ADIERAZLEAK

*“Adierazleak funtsezko elementuak dira plangintzaren fase guztietan, zeren helburuak, emaitzak eta aurrekontuak betetzen diren neurtzen baitute.*

*Zenbakien bidez adieraz litezke, edo baldintza zehatz edo jakin baten aldaketa koalatiboak azaltzen dituzten prozesu edo gertakarien deskribapenaren bidez”. (Rede Mulher de Educaçao, 1996).*

Iharduketek emakumeen egoeran eta genero harremanetan dituzten eraginak neurtzeko tresnak dira genero adierazleak. Generoaren desoreka laburbiltzen eta agertzen duten egoera garantzitsuenak zehazten dituzte, horri buruzko ezagutza edo kontzientzia mailaren arabera.

Generoaren azterketa batetik, balioespen koantitatibo eta koalatibo bat bideratu behar dute.

**Azterketa koantitatiboak** esan diezaguke:

Zer gertatzen ari da?

Nori gertatzen ari zaio?

**Azterketa koalatiboak** azal diezaguke:

Nola gertatzen ari dira gauzak?

Zergatik gertatzen ari dira?

Azken batean, ondokoa adierazi behar dute:

Gizonezko eta emakumeentzako helburu eta emaitzak nola lortu.

Gizarte taldeek, eta halaber, emakume eta gizonek, zer onura mota jasotzen duten proiektutik.

Onurak nola neurtzen diren (Adibidez: onuren gaineko eskuragarritasuna eta kontrola).

### ADIERAZLE MOTAK:

**Arrisku Adierazleak/kanpo-faktoreak:** Proiektuaren arrakastan eragin negatiboak izan ditzaketen faktoreak zehazten dituzte.

Neurri ofizialek ziurtatutako Gizarte Zerbitzuak.

**Prozesu edo produktuen Adierazleak:** garatutako ihardueren emaitzak azaltzen dituzte.

Emakumeen eta gizonezkoen partaidetza orekatua arrain kooperatibetan.

Talde/erakundeetako pertsonen hazkunde edo murrizpen tasak, sexuen arabera bereiziak.



**Garapen emaitzen adierazleak:** Epe labur eta ertainera (espero ziren eragin/ondorioak) eta epe luzera (inpaktua) lortutako emaitzak adierazten dituzte. Inpaktuaren adierazleak proiektu edo programaren eraginkortasuna adierazten du.

Trebakuntza indizea sexuen arabera.

Landutako eremuen hazkunde portzentaia, sexu, etnia, adin, etab.en arabera bereizia.

Beren trebakuntza ikastaroak amaitu dituzten emakumezko arrain-prozesatzaileen statusen izandako hobekuntza, emakumeentzako enplegu aukerak areagotuz.

Proiektuak sortutako onuren erabilera, sexu, adin, etnia, etab. arabera bereiziak.

## **ADIERAZLEAK, HALABER, KOALITATIBOAK ETA KOANTITATIBOAK IZAN DAITEZKE:**

**a) Koalitatiboak:** Gizarte harreman, agintaritza edo gizarte statusen alorrean izandako aldaketan berri ematen dute.

Emakumeen aurkako indarkeria gutxitzea.

**b) Koantitatiboak:** Hasierako egoera jakin batean izandako aldaketak neurtzeko aukera ematen dute, izandako gizarte aldaketak ulertzen lagunduz.

Emakumeen enplegu indizeak igo edo jaitea, gizonek dituztenekin konparatuz.

I. Eranskinean, proiektuek amankomunean dituzten adierazleen proposamen adibide bat doa, ekonomia eta gizarte arloko inpaktuarekin, metodologiarekin eta erakundeekin loturik.

### 3. **B**URUTZAPENA

Proiektuan zehaztutako ekintzak gauzatzeko prozesua da.

## VIII. Taula. Burutzapen fasea

<b>ZER</b>	<p><b>1. ERAGIKETA PLAN BAT PRESTATZEA:</b></p> <p>Emakume eta gizonentzat iharduera zehatzak diseinatzea, kontuan izanik:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>Denbora/iraupena/kokapena.</li><li>Hautapen irizpideak.</li><li>Sarrera/laguntza estrategiak.</li><li>Aukera tekniko eta aplikazio moduen aukeraketa.</li></ul> <p>Baliabideak (fondoak, pertsonala...) banatzea, kontuan izanik:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>Generoa eta teknika partehartzaileak ezagutzen dituen pertsonala izendatzea.</li><li>Genero ikuspegia proiektuko talde guztiaren erreferentzia terminoetan barneratzea.</li><li>Emakume eta gizonen kopuru berdinez osatutako talde bat eratzea.</li><li>Aurrekontu egokia eta orekatua, talde onuraduneko emakume eta gizonen iharduerarako.</li><li>Aurrekontu egokia, genero trebakuntzarako eta proiektuko taldeen partaidetzarako.</li></ul> <p><b>2. JARRAIPEN ETA BALIOESPEN SISTEMA BAT EZARTZEA, SEXUEN ARABERA BEREIZIA. IHARDUERAK BURUTZEA, ONDOKO ALDERDIETAN ARRETA BEREIZIA JARRIZ:</b></p> <p>Talde onuradunak (emakumeak eta gizonak) zer maila duen bere egoera aztertu, planifikatu eta genero ikuspegiarekin iharduera burutzeko gaitasunari dagokienez.</p> <p>Talde onuraduneko emakume eta gizonak sustatzaile eta eragile biderkatzaile gisa parte hartzera bultzatzea.</p> <p>Bai emakumei eta bai gizoni ere heziketa eta promozio aukera berdinak eskaintzea.</p> <p>Genero arloko heziketa premiak taldeko pertsonalarentzat.</p> <p><b>3. GENERO ADIERAZLEETATIK ABIATUZ AURRIKUSITAKO EMAITZEN JARRAIPENA ETA BALIOESPENA, KONTUAN IZANIK:</b></p> <p>Proiektuko instalazio eta zerbitzuen eskuragarritasuna, baita horien gaineko kontrola ere (onuren azterketa proiektu mailan, eta halaber, erakunde laguntzaile eta talde onuradunegi dagokienez).</p> <p>Talde onuradunaren eta erakundearen gaineko eragin/inpaktua.</p> <p>Taldearen errendimendua (hori ere Genero Erreferentziazko Terminoei dagokienez).</p> <p><b>4. DATU-BASEA EGUNERATZEA (SEXUEN ARABERA BEREIZIA) BIRPLANGINTZARAKO OINARRI GISA.</b></p> <p><b>5. PROIEKTUAREN ERAGIN/INPAKTUEN AURRERAPENARI BURUZKO TXOSTENA, JARRAIPEN ETA BALIOESPENAREN EMAITZAK OINARRITZAT HARTURIK, ETA SEXUEN ARABERA BEREIZITA.</b></p> <p><b>6. IHARDUEREN EGOKITZAPENERAKO ETA PROIEKTUKO POLITIKETARAKO GOMENDIOAK EMATEA (BIRPLANGINTZA). BIRPLANGINTZA, PROIEKTUAREN BALIOESPEN ETA BERRIKUSPENAREN ONDORENGO URRATSA DA.</b></p>
<b>NOLA</b>	<p><b>7. LANKIDETZA PARTEHARTZAILEAREN KUDEAKETA</b></p> <p>Talde onuradunaren eta proiektuko administrazioaren artean zuzeneko harremana finkatzea.</p> <p>Talde onuradunaren trebakuntzarako eta oinarrien plangintzarako metodo partehartzaileak erabiltzea.</p> <p>Talde onuraduneko eta tokian tokiko ekipoko ordezkariak iharduerei eta proiektuaren birplangintzari buruzko erabakiak hartzerakoan parte hartzera bultzatzea.</p> <p>Tokian tokiko taldeko eta kanpo-aholkularitzetako emakume eta gizonak barneratzea.</p> <p>Emakumeen eta gizonen lankidetzak aktiboa bilatzea oinarriko talde eta antolamenduetan.</p> <p>Nazio eta nazioarte mailako antolamenduekin harremanak finkatzea, batez ere generoaren gaia lantzen duten haiekin.</p> <p>Beste proiektu batzuekiko lankidetzak bultzatzea eta informazioak, materialak eta esperientziak trukatzeko, bereziki genero arloan.</p> <p><b>8. JARRAIPENAREN ETA BALIOESPENAREN PROZESU PARTEHARTZAILEA.</b></p> <p>Sexu bereizkuntza ziurtatzeko metodo egokiak erabiltzea.</p> <p>Ikerkuntza partehartzailea/ikerkuntza ekintza.</p> <p>Landa Diagnostiko Partehartzailea (DRP)/Arazo eta potentzialitateen azterketan oinarritutako plangintza (PAPP).</p> <p>Erakusgarri koalitatiboak/datu koalitatiboak jasotzea.</p>
<b>NOR</b>	<p>Proiektuaren taldeko emakume eta gizonak, erakunde laguntzaileetako eta talde onuraduneko emakume eta gizonekin lankidetzan.</p> <p>Proiektuko ekipoa, talde onuraduneko ordezkariak, GKEetako aholkulariak, beste laguntzaile batzuk, proiektuetako teknikariak, etab. Beharrezkoa da balioespen partehartzailearen metodologiari buruzko ezagutza onak dituzten aholkularien laguntza lortzea epe motzera.</p>

(Rede Mulher de Educação, 1996).

IHARDUEREN ETA DIRUSARRERAK SORTZEAREN EZAUGARRIAK

IHARDUERAK ETA DIRUSARRERAK	FAMILIAKO PARTAIDEAK							
	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	Orduak / egunero		Dirusarrerak		Orduak / egunero		Dirusarrerak	
	Helduak	Adin txikikoak	Helduak	Adin txikikoak	Helduak	Adin txikikoak	Helduak	Adin txikikoak
<p>1. PRODUKZIO LANA</p> <p>A) LAN AUTONOMOA:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Alearen produkzioa</li> <li>- bertako kontsumorako</li> <li>- salmentarako</li> <li>Nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioa:</li> <li>- bertako kontsumorako</li> <li>- salmentarako</li> <li>Fruten bilketa</li> <li>- bertako kontsumorako</li> <li>- salmentarako</li> <li>Basogintzako bilketa</li> <li>- egurrarena</li> <li>- beste produktu batzuk</li> <li>- zuraren ekoizpena</li> <li>Animalien hazkundera</li> <li>- bertako kontsumorako</li> <li>- salmentarako</li> <li>Artisautza/joskintza</li> <li>- bertako kontsumorako</li> <li>- salmentarako</li> <li>Merkataritza</li> <li>Garraioa</li> </ul> <p>B) SOLDATA BIDEZKO LANA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Alearen produkzioa</li> <li>Fruten produkzioa</li> <li>Nekazaritzako produktuak</li> <li>Basogintzako produktuak</li> <li>Merkataritza</li> <li>Industria</li> <li>Zerbitzuak</li> <li>Zerbitzu publikoak</li> <li>Garraioa</li> </ul>								
<p>2. UGALKETA LANA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Etxeko lanak</li> <li>(sukaldea, garbiketa, erroa)</li> <li>Egur bilketa</li> <li>Egurra moztea</li> <li>Ura bilatzea</li> <li>Seme-alaben zainketa</li> <li>Erosketa</li> </ul>								
<p>3. KOMUNITATEKO IHARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza iharduerak / alfabetatze taldeak</li> <li>Taldeko komunitate lana</li> <li>Auzokide /senide arteko elkarlaguntza</li> <li>Zeremoni eta ospakizunak</li> <li>Kooperatibako iharduerak</li> <li>Genero intereseko taldeak</li> <li>Komunitateko politika</li> </ul>								
<p>4. AISIALDIA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Adiskideak, auzokideak, senideak bisitatzea.</li> <li>Dibertsioa (dantzak, jaiak, jokoak, etab.)</li> <li>Higienea eta gorputza zaintzea</li> <li>Atsedena eta loaldia</li> <li>Bestelakoak</li> </ul>								

## 4. JARRAIPENA ETA BALIOESPENA GENERO IKUSPEGI BATE-TIK

- 4.1. PROIEKTUAREN AURRERAKUNTZAREN JARRAIPENA
- 4.2. EMAITZEN JARRAIPENA
- 4.3. GENEROAREN JARRAIPENERAKO BEHARREZKO BALDINTZAK
- 4.4. PROIEKTUAREN AZKEN BALIOSPENA

**Jarraipena** datuen bilketa eta tratamendurako prozesu jarraia da. Ekintzaren burutzapenaren barruan dagoen iharduera bat da. Ekintza unean uneko gorabeheretara egokitzea da bere helburua.

**Balioespena** azterketa prozesuko urrats bat da, eta horren bidez, zer egingo den, zer egiten ari den edo zer egin den hausnartzen da, informazioa eman, erabaki hobeak hartu edo etorkizuneari hori egiteko gaitasuna areagotzeko xedez.

*“Jarraipena eta balioespena funtsezko elementu dira proiektuaren burutzapen fasean, alegia, birplangintzaren ezaugarri diren egokitzapen iharduerak burutzen direnean, eta halaber, proiektuaren arrakasta ekarriko duten edo ez duten faktoreak aztertzen direnean. Ongi balioe-tsitako proiektu batek jarraipenezko ekintzak zehazten ditu, gizartean duen jasangarritasuna epe luzera bermatuz”.* (Rede Mulher de Educação, 1996).

## 4.1. PROIEKTUAREN AURRERAKUNTZAREN JARRAIPENA

### Ihardueren eta proiektuko emaitzen jarraipena

Hasierako azterketa du oinarri.

Proiektuaren diseinuan zehaztutako genero adierazleak erabiltzen dira.

Proiektuaren taldeko, erakunde laguntzaileetako eta xede-taldeko emakume eta gizonek hartzen dute parte.

### Zerbitzu eta azpiegituren eskuragarritasun eta kontrolaren azterketa

Beronen bidez ikertzen da zenbateraino den eskuragarri proiektuko taldearentzat, erakunde laguntzaileetako partaideentzat eta talde onuradunarentzat proiektuko zerbitzu eta instalazioen gaineko kontrola (informazioa, trebakuntza, poltsak, enplegua, garraiobideak, kreditua, etab.), eta halaber, proiektuaren planarekin bat al datorren egiaztatzen da.

### Proiektuko erabakiak hartzean izandako partaidetzaren jarraipena

Erabakiak hartzean izandako partaidetza koalitatibo eta koantitatiboaren azterketa bat egin behar zaie bai proiektuko taldeari eta bai erakunde partehartzaile eta talde onuradunari ere.

## Errendimendu pertsonalaren jarraipena

Proiektuko pertsonalari dagozkion erreferentziatzko terminoekin bat etorri egiten da.

### **Gomendioak:**

Jarraipenaren amaieran zenbait gomendio eman behar zaizkio proiektua kudeatzen duen taldeari/pertsonari. Gomendio horiek adierazi beharko dute zer aldaketa egin behar diren ihardueretan, baliabideen izendapenean eta proiektuko administrazioaren barne-egituran, planifikatutakoaren eta gauzatutakoaren artean egon daitezkeen desbideraketei erantzunez. (Rede Mulher de Educaçao, 1996).

## 4.2. EMAITZEN JARRAIPENA

Proiektuaren inpaktua (espero zena eta ez zena) balioestea da helburua, talde onuradunarekin, erakundeekin eta gainerako talde partehartzaileekin konparatuz.

Talde onuradunari dagokionez, beharrezkoa da inpaktua balioestea bai premia praktikoen alorrean (elikadura, osasuna, etxebizitza, janzkera, enplegua, dirusarrerak, lan zama egokia, erremintaren eskuragarritasuna, kreditua, etab.), eta bai generoaren interes estrategikoen alorrean (baliabideen eskuragarritasuna, parte hartzea erabakiak hartzean, antolamendurako gaitasuna, autoestimua, mugikortasuna, etab.), proiektuaren plangintzan aurrikusitako adierazleekin bat etorri.

## 4.3. GENEROAREN JARRAIPENERAKO BEHARREZKO BALDINTZAK

Helburu zehatzak eta emaitzak genero azterketarekin bat etorri gauzatu behar dira.

Lorpeneko adierazleek ongi zehaztutako helburuak bildu behar dituzte beren baitan, adieraziz NORIK hartuko duen parte eta zeintzuk diren horien partaidetzatik espero daitezkeen emaitzak.

Emaitzen adierazleak adostasunez zehaztu behar dira.

Ihardueretako aurrerapenen, ordaindutako fondoan eta espero diren emaitzen balioespenean termino koantitatiboetan, egindako aurrerakuntzen balioespen koantitatibo batekin osatu behar da, sexuak eta gizarte taldeak bereiziz.

## 4.4. PROIEKTUAREN AZKEN BALIOESPENA

Balioespenaren helburua, programa baten aplikazioaren berezko eraginak zehaztu eta neurtzea da; hots, gizarte bizitzako eremu zehatz batean egindako iharduketa bati egotz dakizkiokeen ondorioak hautematea. Balioespenaren bidez prozesua azaldu nahi da, proposatutako helburu batzuk lortu izana eta beste batzuk ez lortu izanaren arrazoiak ulertu. Azken balioespenean, azken batean, gertatu dena ulertu nahi da.

Aldez aurretik zehaztutako adierazleak eta plangintza prozesuan zehar lortutako informazioa erabiliz, ondorengoak mugatu behar dira:

Emakume eta gizonentzat lortutako onurak.

Onura horietara iristeko jarraitutako prozesua.

Eragile eta faktore ezberdinek egindako ekarpena, bereziki giza faktoreek (emakumeek eta gizonek).

Baliabide eta helburuen arteko egokitzapen edo koherentzia.

Ekintzen zuzendaritza, antolamendua eta kudeaketaren ardura duten pertsonen (emakume eta gizonen) eta erakundeen jokaera.

Talde onuradunaren (emakume eta gizonen) antolamendu maila eta beren premia eta arazoak irtenbide berriak bilatzeko erdietsitako gaitasuna.

(Rede Mulher de Educação, 1996).

### Balioespenari buruzko zenbait gogoeta

Genero azterketa plangintza fase guztietako funtsezko osagai izan baldin bada bakarrik egin ahal izango da balioespen on bat.

Generoaren plangintzak nola jarraipen eta balioespenak, emakumeen partaidetza aktibo bat behar dute.

Maila zehatzago batean balioespena aurrera eramaten denean, agentzia emaileek, GKEek eta aholkulariek generoaren erreferentziazko terminoak barneratu beharko dituzte, eta horiek gauzatzeko gai den pertsonala izendatu.



Generoaren balioespen kopuru handiagoa egin dadila bultzatzea, egindako aurrerakuntzak egiaztatzeko, eta emaitzei, metodologiei eta erabilitako adierazleei buruzko informazioa partekatzeko.

Emakumeen partaidetza bultzatzea, balioespenerako plangintzatik hasita; beren partaidetza oztopatzen duten eragozpenak nola gaindi daitezkeen ikustea; antolakuntzetako pertsonala gaitzea oinarrian emakume eta gizonekin lan egiteko, beren premia, helburu eta irizpideak proiektuetako zati nagusi direlarik.

# E RANSKINAK

- I. PROIEKTU GUZTIEN ADIERAZ-  
LEAK
- II. OSASUN SAILEKO EGIAZTA-  
PEN  
ZERRENDA BATEN EREDUA
- III. EGOERAREN AZTERKETAN  
ERABILTZEKO EZAUGARRIAK
- IV. GLOSATEGIA

# I. ERANSKINA. PROIEKTU GUZTIEN ADIERAZLEAK

## 1. ERAGIN EKONOMIKOA

Kontuan hartzen ditu:

A: Produkzio esparruak zabaltzea, produkzio kopuruak, dirusarrerak sortzea. Lanaren antolaketa eta ordainketa.

B: Iharduerek merkatuarekin duten lotura.

Proiektuko iharduerek dirusarrerak igotzea eragin dute. Norenak? Ze biztanlego maila izan da onuraduna? Nortzuk zuzenki? Nortzuk zeharka?

Familia barruan nola banatu da dirusarrera? Zein da dirusarreraren xedea? Dirusarrera handien onuradunak emakumeak izan al dira? Nortzuk eta zein zentzutan?

Proiektuko iharduerek gastuen aurrezkoa edo familiako ekonomiaren une larriagoetarako babeserako aurrezki sistemaren bat ekarri al dute?

Iharduera horiek kontsumo produktuen prezioak murriztea eragin al dute? Nortzuk izan dira onuradunak?

Proiektuko iharduerek lanposturik sortu al dute? Nortzuk izan dira onuradunak? Nortzuk geratu dira kanpoan? Lanpostu ordaindurik sortu al du emakumeentzat? Zein eratako edo mailatako emakumeentzat?

Proiektuko iharduerek, mailegu bidezko kapital ekarpenen onurarik eragin al dute? Biztanleriaren arteko nortzuk eta ze mailatakoek jaso dute maileguen onura? Emakumeek? Ze nolako ehu-nekoan?

Zein faktorek erraztu dute emakumeek maileguak eskuratzea? Zeintzuk oztapatu dute?

## 2. ERAGIN SOZIALA

Onurak gizarte maila ezberdinen artean eta gizon eta emakumeen artean nola banatzen diren hartzen du kontuan:

Ze nolako aldaketak eragin ditu proiektuak emakumearen lan aldetik, eta familiaren eta komunitatearen egoeraren aldetik?

Ikus al daitezke emakumearen egoeran eragin ona duten honako ondorio hauetakoren bat?:

Lan zamaren murrizpena.

Denbora lotura gutxiago, eta beste iharduera batzuetara bideratzeko indar eta aukerak: umeen ardura, norberaren heziketa, dirusarrerak sortzea edo ekin nahi dioten edozein iharduera.

Bizitza kalitatearen hobekuntza, norberarena eta familiarena, bere statusaren hobekuntza erabakiak hartzen eskuhartu izanagatik, produkzio baliabideen eta zerbitzu pribatu eta estatalen erabilera eta kontrol handiagoa.

Segurtasun pertsonal handiagoa eta gaitasunen hobekuntza.

Emakumeen partaidetza handiagoa proiektuko eta komunitateko ihardueren kudeaketa formalean.

Emakume, talde, kooperatiba edo bestelako elkarten antolakuntzak sortu edo indartzea.

Ikus al daitezke ondorengo faktore kaltegarriren batzuk?

Lanaren zama handitzea, osasuna hondatzea, hurrekiko ardura jaistea, aukerak murriztea.

Gizarte mailako isolamendua handitzea.

Proiektuko dirusarrerak, produktuak edo onurak oso gutxi, edo bat ere ez, eskuratzea. Ondasun materialak, energia edo produkzio iturri berriak, zerbitzuak, Erakundeak edo Estatua eskura izateko aukerak murriztea.

Bere botere esparruetan edo ohizko zereginetan ohizko agintea murriztea: ura, osasunaren zainketa eta komunitatearen garapena.

Dirusarrera txikieneko emakumeen taldeak proiektuaren onuretatik kanpo geratzea.

Onurak dirusarrera handieneko taldeetan biltzea.

Kontuan hartzen al ditu aurrikusi gabeko ondorioak, emakumeentzat onuragarriak nahiz kaltegarriak?

Emakumeen partaidetza proiektuan.

Emakumeek eskuratu ahal izatea:

Proiektuaren informazioa.

Plangintza eta burutzapena heziketarako programetan

Gaitasunerako programak.

Proiektuaren bidez eratu edo indartutako elkarteak edo kooperatibak.

Handitu ahal da emakumeen egoerari buruzko ezagupena?

Zein da emakumeen jarrera proiektuko lorpen eta iharduerekiko?

### 3. METODOLOGIA

Kontuan hartzen ditu:

- A. Metodologiaren izaera parte hartzailea eta emakumeek esku har dezaten errazteko jarri diren bideak.
- B. Metodologiaren egokipena taldeko gizarte iharduerekiko.
- C. Proiektua autorregulatzeko gaitasuna, ustegabeko emaitza kaltegarriei aurre egiteko.

#### A. METODOLOGIAREN IZAERA PARTE HARTZAILEA ETA EMAKUMEEK ESKU HAR DEZATEN ERRAZTEKO JARRI DIREN BIDEAK

- 1. Onura jasotzen duten taldeen partaidetza, arazoak eta irtenbideak zehazterakoan.
- 2. Biztanleen eta emakumeen iritzia ezagutzeko zein bide aurrikusten dira? Ze maiztasunekin? Zeri buruz?
- 3. Proiektuak aurrikusten al du tokiko liderrak eta udal agintariak emakumeen premia eta eskubideez sentiberatzea, haien partaidetza ziurtatzeari begira?
- 4. Genero gaiak xede taldearekin batera lantzea aurrikusten al da, nahiz eta berau gizonez bakarrik osatua egon?
- 5. Proiektuak komunitate osoa barnebiltzen al du, emakumeen ardurak eta lanak gehiegi zamatzea saihesteko?
- 6. Erabiltzaileei jakinarazten al zaizkie proiektuak lanaren antolamenduan, tekniken erabileran, finantza eta enpresa lanetan dituen eraginak?

Eskaintzen al dituzte aukera ezberdinak, hautaketa arduratsua eta oinarritua ziurtatzeko?

- 7. Esku hartu al dezakete emakumeek beren gaitasun eta gogoen arabera, beren oraingo zereginen kalterik gabe?
- 8. Antolakuntza ezberdinen arteko trukea: emakumeek beren artean, emakumeek biatariko antolakuntzekin, hiritarren barne komunikaziorako guneak errazteko xedez.

#### B. METODOLOGIAREN EGOKIPENA TALDEKO GIZARTE IHARDUEREKIKO

- 1. Hiritarrekin lan egiteko metodoak kontuan hartzen al ditu lan, dirusarrera eta sexuen araberako erabiltzaile taldeak?
- 2. Emakumeekin egiten den lanak kontuan hartzen al ditu haien eguneko ordu lanpetuenak? Beren iharduerekin hurbil dauden modalitateen erabilerarik egiten al du: bilera informalak, eskura dituen eta arriskurik ez duten lekuetan? Bere ikasteko erak kontuan hartzen al dira trebatzeko proposamenak taxutzeko garaian?

3. Hiritarrekiko lanak kontuan hartzen al ditu gizarteko iharduerak: ezagutza mailak, teknologia erabilera, antolakuntza erak?

### **C. PROIEKTUA AUTORREGULATZEKO GAITASUNA, USTEGABEKO EMAITZA KALTEGARRIEI AURRE EGITEKO**

1. Ba al dago proiektuaren bilakaera egiaztatzeko jarraipen sistema egokirik? Aholkularitzaren eta laguntzaren maiztasuna?
2. Sustatzaileen koherentzi maila proposamenekiko.
3. Ze neurri aurrakusten dira proiektuaren implementazioaren eraginez ondorio kaltegarriren bat etorri gero (lan zamaren gehikuntza, emakumeen ohizko agintearen galera, besteak beste)?

(ikus gizarte eragina)

### **4. ERAKUNDEENAK**

Adierazgarri hauen helburua erakundeek generoarekiko dituzten kontzepzioak eta iharduerak aztertzea da. Baita proiektua osatzen duten eta ingurune berean aritzen diren erakundeen irizpide eta ihardueren konbergentzia ere.

1. Nola integratzen da proiektua erakundearen programetan?
2. Ze nolako ikuspegia du erakundeak emergentzia, krisia eta garapenari buruz? Horietan aipatzen al dira zehazki emakumea eta bere eskubideak?
3. Nolako jarrera dute erakundeetako arduradunek emakumeekiko eta haien arazo eta premiekiko?
4. Ikuspegi koherentzia erakunde bakoitzaren barruan eta proiektuan ari diren edo ingurune berean aritzen diren erakundeen artean, arrakasta lortzeko emakumeek egiten duten ekarpenari buruz, onuradun kategoria gisa duten berariazkotasunari buruz eta maila pertsonalean, familiarrean edo komunitatekoan izan ditzaketen onurei buruz.
5. Emakumeekin egiten den lanaren kokapen instituzionala eta taldeen osaketa: sexoa, lan prestakuntza, lanaren zatiketa.
6. Lan taldeen gaiari buruzko ezagupena eta gaitasuna.

Ezagutzen al dituzte proiektuaren emakumearekiko helburuak eta beren arazoak, premiak, gaitasunak eta ikuspegiak barnebiltzeko metodoak?

Iturria: Guzmán, Virginia, 1995. *El genero en la Planificación Social*, Flora Tristán, Peru.

## II. ERANSKINA. OSASUN SAILEKO EGIAZTAPEN ZERREDA BATEN EREDUA

Osasunak eta saneamenduak komunitatearen garapenean sarturik egon beharko luke arlo ezberdinak bilduz. Hau da, informazio zeharkatua; prestakuntza; sentiberatzea; eraikuntza; teknologia; erabaki hartzea; genero rolak.

Emakumeen partaidetza ziurtatzea hasieratik (arazoa ezagutu eta zehaztea) osasun programa bakoitzean. Emakumeen taldeak osasun arretan sartzeari baliabide garrantzitsua da gai hauen gaineko emakumeen kontrola sustatzeko eta zerbitzuetan beren partaidetza ziurtatzeko.

Generoari buruzko galderak jarduera bakoitzarekin loturik egin behar dira, funtsezko informazioa jasotzen dela eta datu horien ondorioak estrategietan eta jardueren plangintzan isla-tzen direla ziurtatzeko.

### A. EMAKUMEAK OSASUN HORNITZAILE GISA

1. Neska txikiak eta emakumeak alfabetatu eta hezitzea funtsezko alderdiak dira familiaren osasuna hobetzeko.
2. Emakumeen ezagupenak eta trebetasunak zehaztu eta hobetzea. (Adibidez: informazioa eta gaitasuna emanez). Osasun sustatzaileen gaitasuna ziurtatu eta bultzatzea.
3. Edateko uraren hornidura eta eskuragarritasuna bultzatzea. Ondorengo puntuak aztertzea:
  - Ur hartunetik etxerainoko/herrirainoko uruntasuna.
  - Edateko uraren mantenimendua eta metaketa.
  - Osasun iharduerak.
  - Etxeko uraren hornidura erantzukizuna.
  - Nork egiten du ur bilketa.
  - Erabiltzen den garraioa eta teknologia.
  - Emakumeen banakako eta antolaketa bidezko eragina uraren eta osasun zerbitzuen eragiketan, mantenimenduan eta kudeaketan. Kudeaketa informala zeregina komunitate mailan.
4. Etxeetako elikadura hornidura premia:
  - Informazioa/prestakuntza neurri orekatuetan.
  - Nekazaritza teknika egokiak eskuratzeko aukera (haziak, ereiteko teknikak, tresneria, ureztaketa).

Dauden elikadura tabuei buruzko informazioa, elikagaien banaketa etxeetan. Nork jaten du lehenengo eta janari onena? Aztertu: emakumeek/gizonek, neskatoek/mutikoek, eta adinak.

Nork erabakitzen du ze elikagai erein, zein jan eta nola prestatu?. Emakumeek/gizonek, adin multzoak etxe batean. Erabakiak hartzen dituzten pertsonak beti sarturik egon behar dute osasun kanpainetako informazioaren transmisioan, gaitasunean eta burutzapenean.

## B. EMAKUMEEN OSASUN PREMIAK

Informazioa bildu eta ondorengo bereizketak egin:

1. Emakumeen osasun premiak, bere sexuari bereziki dagozkionak, programaren barruan:
  - Haurdunaldia, haurdunaldiaren ondoriozko gora-beheren zergatiak.
  - Abortoa, ikuspegi ofiziala eta tradiziozkoa.
  - Zein da familiaren neurri egokiena emakumearen ikuspegitik, familia plangintza, kontrazeptiboak, ugalkortasunaren kontrolerako metodo tradizionalak eta berriak.
  - Sexu bidezko transmisioko gaixotasunak. HIESa.
2. Generoaren premiak osasunari atxikiak:
  - Emakumearen lan zamaren gehikuntza, ziurraski garapen aldaketengatik edo migrazioagatik.
  - Laneko osasun arriskuak.
  - Emakumeen mugikortasun murriztapenak.
  - Neska eta mutikoei tratamendu bera familiako zainketan, elikaduran, txertaketan, osasun zerbitzuen erabileran.
  - Poligamia, emakumeen tradiziozko sexu zeregina eta HIESarekiko beldurra pertsona bezala eta ama bezala.
  - Etxe barruko indarkeria murriztea.
3. Gizonen zeregina eta premiak osasunean eta saneamenduan.
  - Ulertu eta eskuhartzea, senar, guraso, familia buru eta erabakitzailerak diren heinean.
  - Esan nahi du osasunerako heziketa ez zaiola emakumeari soilik zuzendu behar.
  - A eta Bn adierazitako gaietarako buruzko informazioa, prestakuntza eta sentiberatzea goian aipatutako subjektuen artean. Hori lan planetan eta garapeneko langileen lanpostuen deskribapenean sartu beharko litzateke. Adibidea: Nekazaritzako gizonekin, eraikuntzako prestakuntza teknikoarekin, etab.
  - Familia plangintza eta HIESari buruzko informazioa. Kontrazeptiboak eskuratzeko aukera.



Garapeneko langileek, emakumeek nahiz gizonak, osasun arloan gizonak dituzten zerbitzuak eta premiak ulertzea, eta osasuna komunitateko lanaren osagai bat bezala hartzea.

### **C. OSASUN ARRETARAKO ZERBITZUAK ESKURATZEA ETA ERABAKIAK HARTZEA**

1. Emakumeek osasun zerbitzuak erabil ditzakete, ondorengoaren arabera:
  - Hurbiltasuna, irekita dauden orduak.
  - Lan guztiaren gainkarga, bolada bereziki lanpetuak beren ihardueretan.
  - Finantza baliabideen eza.
  - Mugikortasun eta erabaki aukera eza.
  - Emakume langilerik eza.
2. Lanerako hartzearen aukeraketa eta prestakuntza guztiz osasun langileei (emakumeei) zuzendurik dago.
3. Emakumeek askatasunez erabaki al dezakete bere osasunarekin zerikusia duten gaietan? Aske al dira osasun zerbitzuak, tradiziozkoak nahiz modernoak, erabiltzeko?
4. Ziurtatu al da emakumearen partaidetza fase guztietan, maila eta alderdi guztietan?

Iturria: Dederichs-Bain, Birgit, 1996. *Policy Papers: Women's Advancement in Development Cooperation*, GERMAN AGRO ACTION.

### III. ERANSKINA. EGOERAREN AZTERKETAN ERABILTZEKO EZAUGARRIAK

#### ROL HIRUKOITZAREN ESPARRUA

	EMAKUMEAK	GIZONAK
Etxeko iharduerak, lan indarraren ugalketa, seme-alaben eta menpeko pertsonen zainketa.		
UGALKETA ROLA	Haurrak izatea, seme-alabak zaintzea, zaharrekiko arreta, etxeko lanak.	Inolako ardura jarrairik ez, noizean behingo etxeko lanak.
Auto-kontsumorako edo merkataritzarako xedea duten ondasun eta zerbitzuen produkzioa		
PRODUKZIO ROLA	Lan indarraren kopuru txikiagoa ekonomia formalean eta handiagoa iraupenerako ekonomian edo ekonomia informalean. Gehienetan soldata txikiagoak jasotzen dituzte. Bigarren mailako dirusarreraren hornitzailetzat hartzen dira, familia behartsuen dirusarreretan garrantzi handia izan arren. Orokorrean dirusarrera hornitzaile bakarrak dira, emakumeak buru diren etxeetan.	Orokorrean, ekonomia formaleko lan indar kopuruaren gehiengoa dira. Dirusarrera hornitzaile bakartzat hartzen dira, langabetua izan arren. Sarritan klase antolakuntzetako partaide.
Ugalketa, produkzio eta politika arloko iharduerak komunitateko ekintzetara bideraturik, batez ere ondasun eta zerbitzu publikoak urriak direnean edo ez daudenean.		
KOMUNITATE ROLA	Ugalketa zereginaren hedapena. Antolakuntza mistoen hierarkian garrantzi gutxiagoko karguak dituzte eta oso gutxitan gidaritza karguan. Bere partaidetza politikoa mugaturik dago, ugalketa zeregina bete behar izateagatik eta indarreango kultur eta gizarte arauengatik.	Gune publikokoak diren ihardueren arduradunak, esaterako: sindikatu, alderdi eta elkarten bilerak, azpiegituren erosketak, etab. Komunitatearen gidariak dira eta gai publikoen kontrola daramate. Mugikortasun eta ospe handiagoa izan ohi dute.

(Rede Mulher de Educação, 1996).

IHARDUEREN ETA DIRUSARRERAK SORTZEAREN EZAUGARRIAK

IHARDUERAK ETA DIRUSARRERAK	FAMILIAKO PARTAIDEAK							
	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	Orduak / egunero		Dirusarrerak		Orduak / egunero		Dirusarrerak	
	Helduak	Adin txikikoak	Helduak	Adin txikikoak	Helduak	Adin txikikoak	Helduak	Adin txikikoak
<p>1. PRODUKZIO LANA</p> <p>A) LAN AUTONOMOA:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Alearen produkzioa</li> <li>- bertako kontsumorako</li> <li>- salmentarako</li> <li>Nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioa:</li> <li>- bertako kontsumorako</li> <li>- salmentarako</li> <li>Fruten bilketa</li> <li>- bertako kontsumorako</li> <li>- salmentarako</li> <li>Basogintzako bilketa</li> <li>- egurrarena</li> <li>- beste produktu batzuk</li> <li>- zuraren ekoizpena</li> <li>Animalien hazkundera</li> <li>- bertako kontsumorako</li> <li>- salmentarako</li> <li>Artisautza/joskintza</li> <li>- bertako kontsumorako</li> <li>- salmentarako</li> <li>Merkataritza</li> <li>Garraioa</li> </ul> <p>B) SOLDATA BIDEZKO LANA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Alearen produkzioa</li> <li>Fruten produkzioa</li> <li>Nekazaritzako produktuak</li> <li>Basogintzako produktuak</li> <li>Merkataritza</li> <li>Industria</li> <li>Zerbitzuak</li> <li>Zerbitzu publikoak</li> <li>Garraioa</li> </ul>								
<p>2. UGALKETA LANA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Etxeko lanak</li> <li>(sukaldea, garbiketa, erropa)</li> <li>Egur bilketa</li> <li>Egurra moztea</li> <li>Ura bilatzea</li> <li>Seme-alaben zainketa</li> <li>Erosketa</li> </ul>								
<p>3. KOMUNITATEKO IHARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza iharduerak / alfabetatze taldeak</li> <li>Taldeko komunitate lana</li> <li>Auzokide /senide arteko elkarlaguntza</li> <li>Zeremoni eta ospakizunak</li> <li>Kooperatibako iharduerak</li> <li>Genero intereseko taldeak</li> <li>Komunitateko politika</li> </ul>								
<p>4. AISIALDIA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Adiskideak, auzokideak, senideak bisitatzea.</li> <li>Dibertsioa (dantzak, jaiak, jokoak, etab.)</li> <li>Higienea eta gorputza zaintzea</li> <li>Atsedena eta loaldia</li> <li>Bestelakoak</li> </ul>								

## ONUREN EZAUGARRIAK

PROIEKTUKO PARTAIDEAK*	(1) PROIEKTUKO ZERBITZUAK**	(2) PROIEKTUKO INSTALAZIOAK**	(3) ONURAK**
Talde onuraduna			
Eragindako taldeak			
Proiektua burutzen dutenak			
Erakunde laguntzaileak			

1) Partaide diren gizon eta emakumeek onurak jaso ditzaketan zerbitzuak. Ondorengoak izan daitezke: gaitasun ikastaroak, kredituak, makineria, haziak, laguntza teknikoa.

2) Instalazioak: bulegoak, eraikuntzak, ibilgailuak, enplegua, ikasketa poltsak, etab.

3) Onurak zerbitzu eta instalazioen erabileratik sortzen dira. Ondorengoak izan daitezke: ezagupenak lor-tzea, trebetasunak, errendimenduak gauzetan edo ondasunetan, jabegoak, osasun hobekuntza, etab.

\* Proiektuan eskuhartzen duten pertsona guztiak jarri, sexua adieraziz.

\*\* Partaide talde bakoitzean adierazi ezazu zein zerbitzu, instalazio eta onura eskuratu eta kontrola dezakeen. Adierazi E eskuragarritasunerako eta K kontrolerako.

(Rede Mulher de Educação, 1996. *Relações de gênero no ciclo de projetos*, Moreira, T. (arg.) Sao Paulo, 1996)

## IV. ERANSKINA. GLOSATEGIA

**ANDROZENTRISMOA:** Gizonen gauzak eta ezaugarriak unibertsoaren erdigunetzat, errealitatea ezagutzeko eta aztertzeko parametrotzat eta gizakiaren esperientzia unibertsal gisa hartzen dituen jarrera. Gizakia gizonezkoarekin nahasten du. Sexismoaren berariazko era bat da, eta, batez ere, emakumeak ezkutuan eta definizio gabezia utziz nabarmentzen da.

**BERDINTASUNA:** Justizia esan nahi du. Beraz, ezberdintasunak konpentsatu beharreko desoreka egoera bati dagokio. Esate baterako, emakume edo menperatutako gizarte talde batetako partaide jaiotze izanagatik, konpentsazio batzuk sortzen dira legeetan, ohituretan eta gizarte azturetan aukeren oreka bultzatzeko. Orekarik gabe ez dago berdintasunik.

**“BOTERETZEA”:** Genero ikuspegiaren muina den kontzeptua. Emakumeen egoera soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzea eskatzen du. Bere helburua sexuen arteko botere harremanak murriztu edo ezabatzea da. Garrantzitsua da ondo azpimarratzea botere hitza zerbaiterako boterearen zentzuan erabiltzen dela, esaterako, gizarte harreman jakin batzuetan edo guztietan eragina, boterea eta gidaritzatza gauzatzeko bere gaitasunak eta trebetasunak aitortzea eta ez beste pertsona batzuekiko botere gisa.

**EMAKUMEA BURU DEN ETXEBIZITZAK:** Gizon heldurik ez dagoen etxeak (dibortzioagatik, migrazioagatik, alarguntasunagatik, etab.), edo gizonak bertan egon arren dirusarrerarik ekartzen ez duten etxeak (gaixotasunagatik, alkoholismoagatik, drogamenpekotasunagatik, langabeziagatik, etab.).

**EMAKUMEEN BALDINTZAK:** Kontzeptu honek emakumeen egoera definitzen duen testuinguru materiala adierazten du: txirotasuna, heziketa eskuratu ezina, gaitasun eza, gehiegizko lan zama, etab. Orokorrean, generoaren premia praktikoek kontu egiten duten proiektuek hobetu egiten dituzte emakumearen baldintzak.

**EMAKUMEEN EGOERA:** Emakumeek gizonekiko duten bazterketa eragiten duten bizitzako maila materialak eratzen dituzten ezaugarri sozio-ekonomikoei dagokie. Emakumeen egoera lantzeak, desabantaila hori eta gizarte barruan dituen aukeren desoreka hori eragiten duten egiturak eta eragileetan aldaketak sortzea esan nahi du.

**ETXEBIZITZAK:** Etxeko taldea ere deitzen zaio. Etxe berean bizi den jende multzo osoari dagokio: familia nuklearra, hedatua, monoparentala edo poligamikoa. Eskuhartzeko unitate pribilegiatua da generoaren plangintzan.

**GED / GENEROA GARAPENEAN:** Emakumeek gizonekiko duten egoera hobetu nahi duen garapen ikuspegia, gizarte osoa eraldatuz den onurarako izan dadin.

**GENEROA:** Gizarte antolamendurako printzipioa da, kulturalki eraturako emakume eta gizonen gizarte rol eta identitatei dagokie, ezberdinak direlarik testuinguru historikoaren arabera, eta hainbat aldaketa izan ditzakete.

**GENERO AZTERKETA:** Testuinguru jakin bateko emakumeen eta gizonen rola, ardurak eta identitateak dokumentatu eta ulertzen saiatzen da. Gai nagusiek ondorengoa biltzen dute: a) lanaren zatiketa, produktzio eta ugalketako iharduereta; b) Baliabide eta onuren eskuragarritasuna eta kontrola; c) Bi lehenengo gaitan eragina duten gizarte, ekonomi eta ingurugiro faktoreak; d) Erabakiak hartzeko gaitasuna.

**GENERO HARREMANAK:** Kulturak emakumeen eskubideak, ardurak eta identitatea nola definitzen dituen gizonetikiko.

**GENEROAREN IKUSPEGIA:** Emakumeen egoera aldatu eta berdintasun, oreka eta elkartzun handiagoko sexu-genero sistema lortzeko erakundeen konpromisoa da.

#### **GENEROAREN PREMIAK:**

- **PREMIA PRAKTIKOAK:** Emakume eta gizonen berehalako premiei dagokie: janaria, jantziak, heziketa, etab. testuinguru jakin batean. Premia horiek betetzeak ez du zalantzan jar-tzen sexuaren araberako lanaren banaketa edo emakumeek gizartean duten menpeko zeregina.

- **PREMIA ESTRATEGIKOAK:** Emakumeek gizartean duten menpeko egoeraren eragiletzat jotzen dituzten haiek dira, eta horiek betetzeak, epe luzera, boteretzea ekarriko dutenak. Emakumeek eta gizonen, gizartean eta bata bestearen aurrean, beren egoera edo statusa hobetzeko behar duten hura adierazten dute.

**GIZA GARAPENA:** Pertsonen aukerak hobetzen dituen prozesua. Aukera horietako garrantzitsuenak bizitza luze eta osasuntsua, heziketa eta bizitza-maila duina edukitzeko behar diren baliabideen eskuragarritasuna lirateke. Beste aukera batzuen barruan sartzen dira: askatasun politikoa, giza eskubideen bermea eta norberekiko errespetua. (PNUD, 1990).

**“MAINSTREAMING”:** Emakumeak garapenaren bide nagusian sartzeko helburua duen ikuspegi politikoa da (= metodologia, azterketa, politika eta plangintza guztietan genero ikuspegitik eragiteko beharra aitortzea). Berehalako helburua emakumeen egoera sozial eta ekonomikoa hobetzea da.

**MED / EMAKUMEAK GARAPENEAN:** 70eko hamarraldian garaturako ikuspegia da. Berdintasuna, txirotasunaren aurkakotasuna eta eraginkortasuna barnebiltzen ditu. Bere helburua emakumeen egoera hobetzea da, dagoen garapen eredia eta genero harremanak zalantzan jarri gabe.

**OREKA:** Egoera berdinean egotearen oreka esan nahi du. Genero orekak ez du emakumeen lan egiteko, bizitzeko eta beren familiak zaintzeko erari dagozkion aldaketak bakarrik eska-tzen,

# BIBLIOGRAFIA

baizik eta, horrez gainera, gizonak ere prozesuan sartzea esan nahi du. Emakumeek eta gizonak, egoera orekatuan oinarriturik, etxeko, komunitateko, nazioko eta nazioarteko baliabideak mugiarazi eta kudeatzeko duten gaitasun legala eta soziala dela esan genezake.

**ROLA:** Gizartearen eta norberaren espektatiba/eskakizun bezala sortzen diren funtzio, zeregin, ardura eta prerrogatiben multzoa: hau da, pertsona batek rol jakin bat bere egiten duenean, haren inguruak betearazi egiten dio eta zigorrak ezartzen ditu betetzen ez baditu. Norberak bereganatzen du gehienetan, eta batzutan bere psikologia, afektibitatea eta autoestimua horren inguruan sortzen ditu.

**SEXISMOA:** Sexuan oinarriturik, pertsona batzuei pribilegioak ematen dizkion eta beste batzuei, duten giza ahalmen guztia garatzea galeraziz, bazterketa eragiten dien mekanismoa.

**SEXOA:** Unibertsaltzat eta aldaezinezkotzat hartzen diren emakume eta gizonen arteko ezberdintasun biologikoak adierazten ditu.

**SEXUZ BEREIZITAKO DATUAK:** Sexuaren arabera bereizten den informazio bilketa. Esaterako: emakume eta gizon talde ezberdinen rol sozio-ekonomikoei buruzko datuak.

**SEXUZ BEREIZITAKO ERAGINA:** Emakumeen eta gizonen bizitzaren gainean ondorio ezberdinak dituzten ihardueren emaitzak.

AIDOS (Associazione Italiana Donne per lo Sviluppo), 1993. *Guida per il Formatore. Modulo per gli esperti. Strumenti Metodologici per Integrare la prospettiva di genere nella Cooperazione Italiana allo Sviluppo*. Erroma.



- ANDERSON, J., 1992. *Intereses o Justicia. Cuadernos de Trabajo II*. Red Entre Mujeres. Lima.
- BARRIG, M. eta A. WEHKAMP, 1994. *Sin morir en el intento. Experiencias de Planificación de Género en el Desarrollo*. Novib/ Entre Mujeres. Lima.
- CCIC, MATCH & AQOCI, 1991. *Two Halves make a Whole: Balancing Gender Relations in Development*. Ottawa.
- C.C.E. (Comisión de las Comunidades Europeas), 1993. *Mujeres y Desarrollo. Cooperación con los países de América Latina, Asia y el Mediterráneo. Gestión del ciclo de un proyecto*. Brusela.
- C.C.E. (Comisión de las Comunidades Europeas), 1994. *Pêche et Aquaculture. Lignes Directrices operationnelles pour favoriser l'integration de l'approche "genre" dans la preparation et la conception d'un projet ou programme*. Brussela.
- DANIDA (Ministry of Foreign Affairs), 1994. *Evaluation of the Implementation of DANIDA's WID policy: Volume I-IV*. Kopenhage.
- DEDERICHS-BAIN, B., 1996. *Women's Advancement in Development Cooperation. WID-GENDER-GAD*. German Agro-Action. Bonn.
- DE BARBIERI, T., 1992. *Sobre la Categoría de Género: Una Introducción Teórico Metodológica*. En Fin de Siglo. Cambio Civilizatorio. Ediciones de las Mujeres. N°17. Isis Internacional. Santiago de Chile.
- FINNIDA (Ministry of Foreign Affairs), 1995. *Guidelines on Gender Analysis*. Helsinki.
- GRUPO TEMÁTICO GÉNERO, 1997. *A propósito del Género I y II*. Lima. Peru.
- GTZ Pilot Programme on Gender Issues, 1995. *GENDER-Specific participatory approaches in situation analysis monitoring and evaluating*. Bonn.
- GUZMÁN, V., 1995. *El género en la planificación social. Ediciones Flora Tristán*. Lima.
- GUZMÁN, V., P. PORTOCARRERO eta V. VARGAS, 1991. *Una nueva Lectura: Género en el Desarrollo*. Ediciones Flora Tristán y Entre Mujeres. Lima.
- GUZMÁN V. eta M. RÍOS, 1995. *Propuesta: "para un sistema de indicadores de género"*. Servicio Nacional de la Mujer. Santiago de Chile.
- HEGOA, 1991. *Políticas de Cooperación para el Desarrollo y participación de las Mujeres*. Área Mujer y Desarrollo de HEGOA. Bilbo.
- KABEER, N., 1995. *Reversed realities. Gender Hierarchies in Development Thought*. Verso. Londres.
- MACDONALD, M., 1994. *Gender Planning in Development Agencies*. Euroestep/Oxfam Publication. Oxford.